

ELKARRIZKETA: FLORENCIO LUENGO • EKARPENA: ESKOLA AGENDA 21
EUROPAN • ESPERIENTZIA: GURASOEN EGINBEHARRAK MURGILTZE
EREDUAN • GALDEIDAZUE: AMAIA ALVAREZ URIA • ANJEL ALKAIN

hh
hik hasi

116

4 EURO • 2007KO MARTXOA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



GAIA


Latinoamerika eta Karibe
Hezitzaileen batasunerako
topaketa

Ezagutu ingurua, ezagutu mundua



ANIMALIEN BITXIKERIAK

Nahi al duzu jakin nolakoak diren munduko animalien ohitura eta bitxikeriak?



1001 GALDERA ETA ERANTZUN Ezagutzaren mundua

Koloretako 400 irudi, mapak, argazkiak... Natura, historia, zientzia eta beste hainbat gai jorratzen dituen liburu interesgarria.



TARTALO
www.tartalo.com




aurkibidea



8
gaia

PEDAGOGIA 2007 HABANAN

Habanan Pedagogia 2007 biltzarra ospatu berri da. 42 lurraldetatik joandako 5.200 lagunek hartu dute parte ehunka ikastarotan. Hango zenbait ideia bildu ditu Hik Hasik.



16
elkarrizketa

FLORENCIO LUENGO

Atlantida proiektua hezkuntza eta kultura demokratikoa eta komunitarioa bultzatzen duen proiektua da. Eskola, familia eta herriaren arteko lankidetzeta da gakoa. Florencio Luengo proiektuaren koordinatzaileak azaldu digu hori dena.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

PEDAGOGIA 2007 HABANAN

16 elkarrizketa
FLORENCIO LUENGO

24 esperientzia

Gurasoen eginbeharrak murgiltze eremuan
Hiriondo, Poloko ikastola (Baiona)

27 ekarpena

Eskolako Agenda 21 (II), European. Ritxi Hernandez, Jose
Manu Gutierrez eta Jon Benito

30 esperientzia

Etorkizunak ez du itxura onik!
Barakaldoko El Regatoko ikasleak

32 galdeidazue

Zergatik erabili behar dugu hizkera ez-sexista?
Amaia Alvarez Uribe

35 berriak

41 ...goza nazazu gehiago!

Egonaldiak euskararekin. Izaro Susperregi

46 Atzeko atetik
Anjel Alkain

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 . Fax: 943/ 372 154; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Ainhoa Azpiroz. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Miren Guilló. Erredakzio batzordea: Mikel Estonba, Mari Karmen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Matilde Sainz eta Pruden Sudupe. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: TRAM•Graf!k. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Pedagogia 2007 biltzarra Habanan (Hik Hasi). Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2007-II-23). Kopurua: 3.500 ale.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitzake. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Harpidetza orria



hik hasi
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaitetz!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan eta
argitararaten ditugun
gainontzeko materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA
Tel: 943/37 14 08 Faxe: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

editoriala martxoa

Balioak ez dira genetikoak, hezi egiten dira



Hezkuntzaren bidez soilik lortuko dira pertsona hobeak eta gizaterian duten zereginaren eta eraginaren kontzientzia dutenak.

“PEDAGOGIA 2007” biltzarra ospatu berria da Habanan. Nazioartekoa den biltzar hau bi urtez behin egiten da. Aurtengoak, “Hezitzaileen batasunera-ko topaketa” lelopean, Mexikotik hasi eta Txile bitarteko herrialde guztietako ordezkariak bildu ditu. Afrikar, asiar, ozeaniar eta europar gutxi batzuk ere bertan izan ginen. Han ziotenez, mundu zabalean hezkuntzari buruz egiten den biltzarrik garrantzitsuena da.

Bost egunez, hezkuntzaren gainean hausnartzen eta esperientziak trukatzeko jardun dute 5.000tik gora parte-hartzailek biltzarrak eskaini dituen sinposioetan, forumetan, ikastaroetan, hizaldietan eta gainerakoetan.

Biltzar horretan jazotakoa ezagutu eta entzun ondoren, esan liteke aire berriak harrotu direla Latinoamerikan eta Kariben. Eta horien aitzindari eta gidari Kuba dugu. Ez da kasualitatea, beraz, horrelako ezaugarriak eta horrelako dimentsioa duen hezkuntzari

buruzko biltzarra Kuban antolatzea.

Gogoratu behar da 1.959. urtean Kuban iraultza egin zutenean, gobernu iraultzaileak hartu zituen lehen bi neurrien artean bata hezkuntzari zegokiona izan zela. Ondorioz, kubatar guztiak alfabetatu zituzten, eta ordutik berebiziko garrantzia du hezkuntzak eta prestakuntzak herrialde horretan.

Kubak bide horretan izan duen eskarmentua zabaldu nahi izan du beste herrialde batzuetara, eta hor dugu, adibidez, Venezuelako Errepublika bolibartarrean eta Nikaraguan “Nik, ahal dut” alfabetatze kanpainetan elkartzunez egiten ari den lana eta eskaintzen ari den metodologia eta babesia.

Aldera ezina izanik Europan, Euskal Herrian eta Kuban hezkuntza arloan egiten ari den bidea, izan da zer ikusia eta zer ikasia han, zalantzarik gabe.

Askoren artean bi dira nabarmendu daitezkeen ildoak: alde batetik, instrukzioa eta hezkuntza banatzen di-

tuen marra mehearen definizioa; eta bestetik, herri baten biziraupenean eta garapenean hezkuntzak duen funtsezko betekizuna, zer esanik ez globalizazio garai honetan.

Zertarako hezi haur eta gazteak? Behin eta berriro egin duten galdera izan da. Erantzuna, berriz, argia eta garbia: mundua justuagoa bilakatzeko gizateria aldatu beharra dago, eta horren eragileak bertako partaideak dira. Hori guztia antolatzeko ezinbesteko bitartekoak balioak dira, eta balioak ez dira genetikoak, hezi egiten dira.

Galdetzen ote diogu geure buruari zertarako ari garen hezten gure gazteak? Neurgailu gisa ipini dizkiguten hainbat frogak izan behar ote dute gure lanaren helmuga?

Zabal diezaiegun atea harrotu diren aire berri horiei, Europako bazter honetan euskaldunon herri zahar honek jendarte justuagoan herri gisa biziraun eta garatu nahi du-eta!

kronika

Oraindik Hezkuntza sailburuak ez du hizkuntza ereduaren gainerako proposamenik aurkeztu Legebiltzarrean.

PSE-EEK sistema eleanitza proposatu du; euskara, gaztelania eta ingelesa lantzen dituen ereduak. Haur Hezkuntzan % 20-25 egingo litzateke euskaraz,

% 20-25 gaztelaniaz, ingelesez ehuneko zehatzik ez eta gainerako % 50 ikastetxeak nahi duen moduan banatzeko euskara eta gaztelaniaren artean. Lehen Hezkuntzan euskaraz % 30, gaztelaniaz % 30, ingelesez %10 eta gainerako % 30 ikastetxeak nahi duen moduan banatzeko euskara eta gaztelaniaren artean.

DBHn, berriz, euskaraz % 30, gaztelaniaz % 30, ingelesez %17 eta gainerako % 23 ikastetxeak nahi duen moduan banatzeko euskara eta gaztelaniaren artean.

Bestalde, EHIGEek dio legea aldatu behar dela ikasle elebidunak lortu nahi badira. Euskadiko Eskola Kontseiluak bezala, eredu bakarraren alde egiten du. Lortu beharreko gutxieneko batzuk jarrita, ikastetxe bakoitzak bere eredu propioa izatea defendatzen du.



Seaskak EEPren laguntzarik eza salatu du

Seaskak salaketa egin du EEP Euskal Erakunde Publikoak bere beharrak eta eskubideak aintzat hartzen ez dituelako. Eusko Jaurlaritzak eta EEPk sinatu duten akordio berriarekin, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa eta Seaska beldur dira orain arte Jaurlaritzatik iristen zen diru laguntza gutxiagotzearekin. Eusko Jaurlaritzari bere dirua banatzeko irizpideak ezartzeko eskaera egiten diote.

Duela bi urte sortu zen EEP estatu frantziarraren eskutik. Bere funtzioa Zuberoa, Nafarroa Beherea eta Lapurdiko hizkuntza politika garatzea eta euskal erakundearen diru laguntzak kudeatzea da, tartean Seaskarena. Beraz, erakunde horiek ezin diete diru laguntzarik eskatu zuzenean emaileei, EEP dago bitartekari moduan eta erabakia harena da. Berriki EEPk Eusko Jaurlaritzarekin akordioa sinatu du. Jaurlari-

tzak urtean 450.000 euro emango dizkio eta EEPren esku gelditzen da diruaren banaketa.

Seaskaren egoera ez da batere samurra. 14 urtean diru laguntzak ez dira areagotu, berdinean diraute eta bitartean ikasle kopurua 1.000 ikasle gehitu da. Seaskaren aurrekontuen % 10 (95.000 euro) soilik da EEPrengandik jasotzen dena, eta % 70 gurasoen ardurapean gelditzen da. Ondorioz, Seaskaren iritziak, "euskarazko irakaskuntzarentzat Euskararen Erakunde Publikoa eraginik gabekoa da".

Seaskak esan duenez, estatuaren ordezkari batek "Seaska zapaldu behar da" hitzak erabili zituen Euskal Herriko hautetsi baten aurrean. Ezin dira hitzok egiaztatu, baina hartzen ari diren erabakiek ez dute kontrakoa erakusten.

Aurtengo ikasturtean arazo anitz dituzte: irakasle postu eskasia eta ondorioz Seaskak bere kontuz hainbat postu finantzatu beharra, zuzendaritza delegazio ordurik eza, diru laguntza areagotzerik eza, eta horrez gain, Herriko etxeetan Seaskari laguntzak muga-tzeko presioa egin da. Ez dirudi datoren ikasturterako gauzak aldatzera doaztenik.

Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko lehendakari Koldo Tellituk Seaskarekin eskaintako prentsaurrekoan argi esan zuen: "ez dugu Seaska bakarrik utziko afera erraldoi honen aurrean".

Herri batek irauteko harrotasuna eduki behar du, horren ezean, herritarrek beste nonbait bilatuko dute beren izateari behar duen duintasuna eta ziurtasuna emango dizkion komunitatea.

Jose Inazio Lopez de Luzuriaga



Euskarazko haur eskolak ari dira eskatzen Iruñean

Iruñeko auzoetako herritarrak biltzen dituen plataforma berria da Haur Eskolak Euskaraz izenekoak, eta izenak berak argi adierazten du zein den beren aldarria: Iruñean euskarazko haur eskolak zabaltzea. Gaur egun hamasei haur eskola daude Nafarroako hiriburuan eta horietatik bi baino ez dira euskarazkoak. Biak Txantrea auzoan kokatuta daude, eta beraz, gainerako auzoetarakoek hara joan behar dute euskaraz eskolatu nahi baldin badute. Beterie plazak gelditzen badira, noski. Zeren euskarazko bi haur eskoletan 123 haurrentzako lekua dago. Gaztelaniazkoetan, ostera, 977 haur sartzen dira.

Plataforman parte hartzen duten hezitzaile, guraso eta auzotarrek adierazi dutenez, “azken 12 urtetan ez da euskarazko haur eskolarik ireki Iruñean, nahiz eta udalak hitza eman”. Eskatera hor egon arren, udalak ingelesezko

bat ireki zuen, eta laster beste bat irekiko du. Euskarazko eskaera askoz ere handiagoa dela diote plataformako ki-deek, eta hori zentzugabea dela.

Egoera honetan hizkuntza eskubideak urratzen direla salatu dute. Udalarri gogorarazi diote euskara hizkuntza ofiziala dela Iruñean, gaztelaniarekin batera. Hizkuntza eskubideak udaleko euskararen ordenantzetan eta Europako Hizkuntza Gutxituen Gutunean jasota daudela gogorarazi diote.

Bada kezka eragiten dien beste arlo bat ere: kalitatearena. Udalak zenbait haur eskolen kudeaketa enpresa pribatu eskuetan utzi du, eta ekimen honen bultzatzaileek diotenez, “ondorio txarra edukitzen ari da”.

Euskara eta kalitatea dituzte, beraz, mahai gainean jarrita, eta alderdi politikoekin gai horietaz hitz egiteko asmoa agertu dute.

Hautzaindegiak jartzea aztertuko da EAEko sare publikoan

Eusko Legebiltzarrak eskatuta, Hezkuntza Sailak hezkuntza sistema publikoan hautzaindegiak jartzeko aukera aztertuko du. Aralarrek egin zuen jatorrizko proposamenetik etorri da erabakia. Aralarrek sare guztiek hautzaindegiak eskaintzeko baldintza berberak edukitzea eskatu zuen, itunpeko zentroek eta pribatuek aspalditik eskaintzen dutelako eta publikoek ez.

Paueko Akademia Ikuskaritzak definitu du datorren ikasturterako eskola karta eta lanpostuen murrizketa da ezaugarri nagusia.

EEP Euskararen Erakunde Publikoak emandako datuen arabera, eskola publikoan orotara 13 lanpostu galduko dira, horietatik 4,5 eskola publiko elebazarretan eta 8,5 eskola elebidunetan. Beraz, eskola elebidunek galera handiagoa izango dute. 27 dira Ipar Euskal Herriko eskola elebidunak eta horietan 11,5 frantses irakasle gutxiago eta 2,5 euskara irakasle gehiago izanen dira.

Murrizketa horiek ez dute inor gustura utzi. Ikas-Bi eta BigaBai guraso elkarteak kexu agertu dira neurri horiek irakaskuntza elebidunaren aurkako erasotzat hartu dituztelarik. Hainbat herritako auzapezak ere haserre daude estatu frantziarrak ez duelako dirurik jartzen irakaskuntza elebiduna bultzatzeko. EEPk ere neurri horiekin hizkuntza politikan zehaztutako helburuak nekez lortuko direla adierazi du, hau da, horrela zaila izango dela euskal hiztunak sortzea. Dena dela, oraindik datorren iraila bitartean gauzak doitzeko denbora badagoela aditzera eman du. Gurasoak, ordea, ez daude hain lasai. EEPren eta Frantziako Hezkuntza Ministerioaren jarduerak ez baitira koherenteak.

GAIA

Pedagogia 2007 *Habanan*





Urtarrilaren 29tik otsailaren 2ra bitartean “Pedagogia 2007” biltzarra ospatu zen Habanan.

Bertan, mundu osoko partaideak izan ziren, gehienak latinoamerikarrak eta karibearrak izan baziren ere. Guztien artean, kubatarrak, venezuelarrak eta mexikarrak nagusitu ziren.

Biltzarraren neurria hartzeko, hona hemen datu batzuk: 42 lurraldetatik joandako 5.200 partaide, 18 sinposio, 3 foro, 108 ikastaro, hitzaldi ugari, erakusketa, material pedagogikorako salto-kiak, ikastetxeak ezagutzeko bisitak, esperientziak aurkezteko taulak...

Hezitzaileen batasunerako topaketa

“Hezkuntzaren iraultza beharrezkoa da klima aldaketa, gudak, neoliberalismoa eta aberastasunaren banaketa okerra bezalako erronkei aurre egiteko”. “Analfabetoa edo gaizki hezia aurrera egiteko eta garaitu beharreko erronkei gizatasunez erantzuteko gai izango al da?”

Halako galderak eta iritziak entzun genituen biltzarrean. Izan ere, AEBk munduko aberastasunaren % 34 omen du eta kontinente berean (Latinoamerika eta Karibe) 209 milioi biztanle txiro bizi omen da, duela 20 urte baino 70 milioi gehiago.

Kuban sortutako “Nik ahal dut” hainbat hizkuntzatar itzulitako alfabetatze metodoa, 16 estatutan aplikatzen ari da, eta horren bitartez, milioika biztanle irakurtzen ikasten eta hezten ari dira. Venezuelan bertan, jada, milioi bat eta erdi dira metodo horri esker alfabetatu direnak.

Oso adierazgarria izan da, bestalde, Venezuelako hezitzaileek agertu duten konpromisoa azken urte hauetan martxan jarri dituzten “misioak” aurrera ateratzeko garaian: irakurtzen, idazten eta oinarritzko ariketak egiten ikasteko misioa, lehen mailako ikasketak amaitzeko, bigarren mailakoa, lanerako prestakuntzakoa, unibertsitate aurrekoa eta unibertsitate ikasketetako.

Agertutako beste datu batzuen artean esanguratsua da latinoamerikar he-

rrialdeetan hezkuntzara BPG Barne Produktu Gordinaren % 2,7 bideratzen dela, batez beste. Kuban, aldiz, % 12,3. Izan ere, Kubak, hirugarren munduko estatua izanik, unibertsitateko ikasketak doan egiteko aukera eskaintzen die gazte guztiei. Seguruenik, bakarria izango da mundu osoan. Horrek, bere ondorioak dakartza: Latinoamerikan % 7k egiten baditu unibertsitateko ikasketak, herri horretan % 57k.

Beste informazio interesgarri bat ere zabaldu zen, ALBA erakundeak sustatzen duen “Mirari ebakuntza” dertizana. Horren bitartez, milioi erdi bat haur eta gazte operatu dira begietatik doan, hobeto ikus dezaten eta ikasketetan maila hobea eman dezaten.

Telebista izan zen landutako beste gai garrantzitsu bat. Telebistaren bidez zabalitzen diren agresibitateari, indarkeriari, bortxakeriari, errespetu faltari, balio zapaltzaileei eta abarri aurre egiteko, telebistaren funtzio eta egiteko hezitzailea nagusitu behar dela adierazi da behin eta berriz.

Hezitzaileen batasunak lagun dezake horretan guztian, euren lanari prestigioa emanez, euren egiteko sozialaz kontziente izanez, eta hezteko modu anitzak errespetatuz.

Biltzarraren ezaugarri nagusia balioren garrantzia azpimarratzea izan da. Batez ere, hezkuntzak mundu hobea egiteko ahalmena baduela zabaltea.



G

Kubako hezkuntza ministroa

Luis Ignacio Gómez Gutiérrez:

“Hezkuntza pertsonaren eta haren itxaropenaren aldeko borroka da”

Kubako Errepublikako Hezkuntza ministro Luis Ignacio Gómez Gutiérrezek “Hezkuntza iraultza Kuban” hasierako hitzaldia eskaini zuen Pedagogia 2007 jardunaldian. Ondoren, Karl Marx antzoki ederrean mintzatu ginen berarekin.

Kubak bere BPG barne produktu gordinaren % 12,3 inbertitzen du hezkuntzan. Ahalegin handia kontuan izaten badugu 40 urtetan luzatzen den AEBn blokeo ekonomikoaren ondorioz Kubak bizi duen egoera ekonomikoa.

Bai, halaxe da. Gure helburua da hiritar guztiek kultura orokor integrala izatea. Historiaren ezagutza sakonaz, eta besteen artean prestakuntza politiko, ekonomiko, filosofiko, zientifiko, artistiko, literario eta juridiko sendoz soilik uler bailiteke munduak bizi duen egoera konplexua eta kontzientziar borrokatu jendartea mehatxatzen duten arriskuen kontra.

Kultura maila hori atxemateko, Ideien Borroka garatu da gure herrian. Helburua, ikasteko aukera berdintasunaren bidez eta hezkuntzarako sarbide libreaz hiritar bakoitzak hezkuntza maila ahalik eta gorena lortzea da jendarte justizia osoa konkistatzeko.

Eta nola gauzatu duzue hori guztia?

Iraultzaren programa multzo bat garatu da eta horien helburua zera da: “hezkuntza bizitzarekin hasi eta heriotzarekin soilik amaitzen da” Jose Martí-



ren pentsamendua errealitate bilakatzeko beharrezkoa den hezkuntza pertsonifikatua.

Haur guztiak osasun zentroetan jaiotzen dira, eta elikadura eta arreta medikua ziurtatzen zaie. Haurren zainketan gurasoek duten eskola maila altuak laguntzen du. Haurra jaio aurretik haurraren garapen egokiena errazteko prestakuntza jasotzen dute, gainera. Hala, familien % 99k “Hezi zure seme-alaba” programari etekina ateratzen dio. Prestakuntza hori hezkuntza bide ez-formaletatik edo haur zirkuluen bidez eskaintzen zaie.

Hezkuntza pertsonifikatua beharrezkoa dela aipatu duzu. Nola hezuramaitzen da hori?

Hezkuntza pertsonifikatuaren helburua lortzeko ezinbestekoa da haur bakoitzaren diagnosi psikopedagogikoa, soziala eta osasun arlokoa izatea. Diagnosi hori metatzen joaten den eskola txostenean txertatzen da. Txosten horrek Hezkuntza Sistema Nazional osoan egingo duen ibilbidean lagunduko dio haurrari. Irakasle irakasle eta mailaz maila txostenaren entrega pedagogikoa egiten da. Horrela, sisteman

zehar igarotze harmonikoa lortzen dugu, eskola porrota saihestuz eta ikasketetan eta balioen prestakuntzan eraikitze sendoa ziurtatuz.

Zein da Kubako hezkuntza sistemaren iparra, horrela esan baldin badaiteke, behintzat?

José Martí honela zioen: “Instrukzioa eta heziketa ez dira gauza bera: hura pentsamenduaz ari da, eta hau, batik bat, sentimenduez”.

Horrek bat egiten du balio unibertsaleko latinoamerikar eta karibear pedagogiaren oinarria osatzen duten kontzeptuetan.

Beraz, ideia pedagogiko hori da Kubako hezkuntzan gertatzen diren funtzesko aldaketen norabidea zuzentzen duena. Ondorioz, ez dago aldaketa kurrikular handiak egiteko beharrik.

Kuban, eskolan martxan dagoen aldaketa funtsezkoena hauxe da: irakasle eta maisu guztiak ikasle kopuru jakin baten prestakuntza integralaren lorpenarekin arduratuta dauden hezitzaile bilakatzea. Era berean, telebista, bideoa eta ordenagailuak irakaskuntzarako bitarteko gisa modu egokian erabiltzeko gaitzen ari gara irakasleak.

Eta mailaz maila?

Lehen Hezkuntzan irakasle bakoitzak 20 ikasle ditu. Lehen mailatik laugarrenera, eta kasu askotan seigarrenera, aritzen da talde berarekin. Horrela, ikasle bakoitzarekiko arreta berezia ziurtatzen da.

Kuban, lehen mailako ikasketak amaitu ondoren, denek bigarren mailako ikasketak egiten jarraitzen dute. Lau



Gazte guztiei unibertsitate ikasketak erabat doan egiteko aukera ematen dien munduko herrialde bakarra bilakatu da Kuba.

urtetik hona eredu berri batekin ari gara Bigarren Hezkuntzan. Irakasle bakoitzak 15 ikasle ditu, eta bera da gai guztiak irakasten dituen: irakasle integral orokorra esaten diogu. Bere lanean, gai guztietarako bideoen eta telebistaren laguntza du, eta baita eduki guztiak jasotzen dituzten softwareena ere. Ondorioz, irakaspena biderkatu egin da, eta errepikapenak eta eskola hutsegiteak gutxitu egin dira. Ikasleak eskolan egoten dira goiz eta arratsalde, eta irakasleek duten gisan, elikadura doan ziurtaturik dute.

Ba al du segidarik lan egiteko modu horrek?

Noski, ondoren ikasle guztiek ziurtaturik dute ikasketen jarraipena unibertsitateurreko edo tekniko-profesionaleko ikasketetan.

Lehenean ere irakasle integral orokorrak ditugu. Maila horretako ikasle gehienek barnetegietan ikasten dute eta doan jasotzen dituzte eskola materialaz gain, jantziak, oinetakoak, elikadura eta garraioa. Guztiek, gainera, plaza bat ziurtaturik dute goi mailako ikasketetan. Ikasketa Politeknikoa ere eraldatzen ari gara.

Bere gazte guztiei unibertsitate ikasketak erabat doan egiteko aukera ematen dien munduko herrialde bakarra bilakatu da Kuba. Horra hor emaitzak: Kubako gazteen % 57 goi mailako hezkuntzan matrikulaturik dago.

Nola antolatu duzue behar bereziak dituzten ikasle heziketa?

Sistema berezi bat antolatu dugu. Bertan, 426 eskola ditugu, eskolara etorri ezin diren haurren etxetara joaten diren irakasleak ditugu, eta ospitaleetan ikasgelak ditugu osasun erakundeetan tratamendu luzeak behar dituzten haurrentzat. Guztiek beren mugak ahalbidetzen dituzten gorenko ikas-

ketak jasotzen dituzte edo lanpostu baterako prestatzen dituzten lan prestakuntza jasotzen dute. Heziketa Bereziaren helburu nagusia jendartean pertsona bakoitza osotasunean txertatzea da, gure herrian dugun eskubide berdintasunaren barruan, inor baztertu gabe, beraz.

Zergatik ematen diozue hainbeste garrantzia telebista txertatzeari?

Telebista komunikabide oso ahaltsua da, baina zoritxarrez herrialde gehienetan bizimodu kontsumista, biolentzia eta ustelkeria bultzatzen duten iragarkiz eta edukiz beterik dago.

Kuban bi heziketa kate sortu ditugu. Ikaskuntza maila bakoitzeko ikasle programetara egokitzen diren eskolak emititzen dira, eta gure herriaren kultura orokor integralaren osaketan laguntzeko programazio zabala ere bai.

Ideien Borrokaren bitartez eskatu behar da beste lurraldeetan ere, Kuban gertatzen den moduan, telebista irakaslearen laguntzaile izatea: hiritar aske, osasuntsu eta independenteak beharrezkoak diren balioetan hezteko lagungarri gerta dakion.

Nork parte hartzen du hezkuntza sistemaren barruan?

Sozialismoak pertsona pertsonarengandik esplotatua izatea desagerrarazi zuen Kubatik. Ondorioz, arlo guztietan helburu gorenak lortzeko elkarlana eta integrazioa ezinbestekoa dituen jendartea sortu zen. Ikasleak ikasle erakundeetan antolaturik daude; irakasleak, beriz, Hezkuntzako, Zientzietako eta Kiroletako Langileen Sindikatu Nazionalan daude antolaturik. Guztiek zuzendaritza kontseiluak osatzen dituzte eta nazioan, probintzian, herrietan eta hezigune bakoitzean jarduten dute. Organo horietan, demo-

kratikoki eztabaidatzen dira Naziorako Hezkuntza Politikaren laguntzarako adostu beharreko irizpide guztiak.

“Lehen mundua” osatzen dugunok hitzetik hortzera darabilgu balioen gaia, eta batzuk sinetsita gaude hortik beharko lukeela hezkuntzaren bideak. Zein iritzi duzu?

Gure heziketa balioen prestakuntzan garatzen da, “jendearen hobekuntza eta bertutearen erabilpenean” etika martianoan oinarritua.

Hemen, uharte txiki honetan, Amerikako lurralde librean, hezkuntza pertsonaren eta haren itxaropenaren aldeko borroka da.



Venezuelako hezkuntza ministroa

Adan Chavez Frias:

“Milioi bat eta erdi herritar alfabetatu ditugu, jada”

1999an Hugo Chavezek Venezuelako hauteskundeak irabazi zituen. Ordu-tik aldaketa handiak eta sakonak gertatzen ari dira Venezuelako Errepublikak Bolibartarrean.

Adan Chavez Frias, Hugo Chavezen anaia, Hezkuntza ministro izendatu berri dute. Berarekin izan gara Habanan, Pedagogia 2007 biltzarrean.



Zein da, bada, zure ustez, hezkuntzaren xedea?

Estatuak ikuspegi humanistatik eta sozialetik landu behar du hezkuntza. Hori ezinbestekoa da norbanakoa jendarterako, lanerako eta berdintasun espiritua izateko prestatzeko bidean; funtsezkoa da anaikidetasuna, elkartasuna, justizia soziala eta nazioarekin dituzten eskubideak eta betebeharrak ezagutzen dituzten herritarrak sortzeko. Elkar errespetatzen eta zerbitzatzen ikasi behar dugu, denon interesei lehentasuna emanaz, eta ez norbanakoei soilik. Hori guztia heziketaren bidez lortzen da, elkarbizitzarako prestatuz.

Zein aldaketa gertatu dira azken urteetan?

Aldaketa beharrezkoa zen eta hori posible egin da iraultza bolibartarraren bidez. Horren adierazle batzuk hauek dira: 1998an eskolatze tasa % 59koa zen, heziketarako inbertsioak Barne Produktu Gordinareneko % 2,8 suposatzen zuten. Eskola pribatuak gora egiten zuten eta publikoan ikasketak mailak gora joan ahala bazterkeria gero eta nabarmenagoa zen. Gobernua iparamerikarren txotxongiloa zen.

1999an, Hugo Chavezek irabazi eta gero, adierazleak aldatzen hasi ziren. Konstituzioan ezarri zen jende guztiak kalitatezko heziketa integrala eta iraunkorrerako eskubidea duela, baldintza eta aukera berdintasunean, muga bakarra norberaren gaitasunek eta bokazioak jartzen dutelarik.

Nola islatzen da hori datuetan?

Iaz bertan, hasierako ikasketetarako 319 ikastetxe berri eraiki genituen, 23 eskola indigena, behar bereziak dituzten ikasleentzat 50 eskola, lehengo 44 lizeo oraingo sistemara egokitu ditugu, eta 4.132 eskola tradizional bolibartar bihurtu ditugu. Gainera, haur eskolentzat 205 gela eraiki ditugu eta 15 eskola tekniko birmoldatu. Informatikako 600 zentro jarri ditugu martxan, 36.000 ikasle informatikaren bidez ikasten jarri ditugu eta ikastetxe horiei laguntza eskaintzeko 14 zentro prestatu ditugu. Horrekin batera, 15.387 ikasle eta tekniko berri sortu genituen. Eta 6.980 zuzendari prestatu ditugu.

Entzunak dira zuen “misioak”. Zein dira eta zer lortzeko?

Kubaren laguntzaz “Yo sí puedo” metodoa ezarri dugu eta 1.500.000 herritar alfabetatu ditugu.

“Robinson 1” misioaren bidez 327.816 graduatu dira 6. mailan. Orain, “Robinson 2” deitu diogunean 256.336 aurkitzen dira, Bigarren Hezkuntzan.

“Ribas misioak” erdi mailako titulua lortzen laguntzen du.

“Sucre misioan” unibertsiitate maila-

Zertan oinarritzen da Venezuelako hezkuntza berria?

Simon Rodriguez hezitzaileak (Simon Bolivarren arabera Caracareseko Sokrates zena) zioen irakasleak jakintsua, ilustratua, filosofoa eta komunikatzaile ona izan behar duela. Bere egiteko nagusia ikasleak jendarterako, elkarbizitzarako, heztea baita.

Hezkuntza politikarekin lotzen duzuela esaten da.

Neoliberalismoak ez die erantzuten jendarte osoaren oinarritzko beharrei, eta horien artean heziketari. Hezkuntza eta politika banatu egin behar direla diote. Hala, sistema kapitalista gartzatzen den neurrian, gero eta sutilago gartzatzen du gezur hori, eskolak politikaren gaintetik egon behar duela eta jendarteari bere osotasunean erantzun behar diola esatean. Bere praktika beste bat baita, eskola gutxi batzuen promoziorako erabiltzean eta burgesiaren alde eta klase sozial desberdinen arteko menpekotasuna eragitean.

Dena gezurra eta hipokresia hutsa da. Azken finean, hezkuntzaren benetako xedea urardotzen baitu.



ko ikasketetan ere aurrerapen handiak ematen ari dira.

Aurrera begira iraultzan sakontzean dago garrantzia, herritarren boterea sozialismoaren bidean jartzean eta hori zehaztean. Garai berria dator: XXI. mendeko sozialismoa deitu duguna.

Prestakuntza sozial kapitalista prestakuntza sozial sozialistak ordezkatu behar du, pertsona berria sortzeko garaia baita. Che Guevarak zioen moduan, “alienazio eta ezjakintasunarentzat tokirik egongo ez den jendartea prestatzeko garaia da”.

Zein metodologia erabiltzen duzue?

Pedagogiak egokitu beharra dauka pertsona berri hori sortzeko, bere egoera konkretuaren eta bere historiaren jabe izango den pertsona.

Haur bat hezten denean ez da egiten bere onerako soilik, kolektibo batean zerbitzeko baizik. Heziketak etorkizunera begiratzen du, hiritar onaren prestakuntzan aritu behar du, kolektibitatea eta elkarbizitza hobetzen laguntzeko.

Ideologia burgesa gainditu behar da pertsonaren heziketa soziala eta espirituala lantzeko. Gure heziketa sozialistak zapalkuntza kateak hautsi behar ditu eta inperialismoaren globalizazioari aurre egin behar dio.

Horretan guztian curriculumak garrantzi handia du. Aldaketa ez baita posible kontzientziarik gabe.

Heziketa motore garrantzitsua da gure herriaren aldaketan. Ezequiel Zamorak zioen moduan, “moral eta argiak heziketa espazio guztietan, leku guztietan, uneoro”.

Zuek horretan ari al zarete?

Jakintza, ekintza eta elkarbizitza lantzen ari gara, elkartasuna, demokrazia parte-hartzailea eta aldaketa instituzionala gertatzeko. Heziketa integrala, doakoa, derrigorrezkoa, multietnikoa, multikulturala, eleanitza eta kalitatezkoa denontzat.

Eskola komunitateko kideen arteko parte-hartze protagonikoa, elkarrekotasuna eta denon onura bilatzea landu behar dira.

Kontzientzia internazionalista landu behar dugu Latinoamerikak eta Karibek bat egiteko. Askok aldatu da egoera azken bi urteetan lurralde horietan, irratia eta telebistaren bidez (ALDA programa) prestakuntza eskaintzeko

Prestakuntza sozial kapitalista prestakuntza sozial sozialistak ordezkatu behar du, pertsona berria sortzeko garaia baita.

programekin.

Horiek dira erronkak. Jendartea esnatzen ari da jendartea ekitatiboagoa eta hobea izan dadin, herriak libreak izan daitezten.

Zer esango zenuke irakasleen prestakuntzaz ?

Trantsizio prozesuan gaude. Egiteko asko daukagu. Irakasleen prestakuntzan arreta jarria dugu eta oinarrizko prestakuntzan ahalegina egiten ari gara. Dena den, inertzia handiak daude, lehengo irakasle asko baitago eta lehengo estiloan jarraitzen baitute. Herri berri bat jaiotzen ari da, baina jendarte zaharraren alde daudenek, kapitalismo eta kolonialismoarekin lerrotuta daudenek bizirauten dute. Egitura sozialista eraikitzeko prozesuan, “Sucre misioaren” bidez irakasle berriak sortzen ari gara, gaurko beharretara egokitutakoak.

Unibertsitate klasista tradizionaletik unibertsitate berrira igarotzeko “Sucre misioa” egiten ari dena indartu behar dugu. “Unibertsitateko irakasle bolibartarrak” ugaritzen ari dira, eta gaurko gutxiengo bada ere, talde hori indartzeko lana egiten jarraitu behar dugu, nekazaritza eta ikasle erakundeekin batera, herritarren eta gobernuaren laguntzarekin.

Hainbat ondorio

Biltzarraren ondorioak

Hik Hasiko kideok eskolak bisitatzeko, harremanak egiten, materialak ezagutzen, hainbat hitzalditan entzule gisa parte hartzen, biltzarraren antolaketa ezagutzen ibili gara eta, nagusiki, bi sinposiotan hartu dugu parte: balioak eta kulturartekotasuna izenekoak.

Ondoren, bi sinposioetako ondorioak aurkezten ditugu eta bisitetan gehien interesatu zaiguna: Bigarren Hezkuntzako diziplinartekotasuna.

Kulturartekotasuna sinposioaren ondorioak

16 tailer, 2 mahai inguru, 23 panel, gaikako hitzaldietan eta abarretan 202 lan aurkeztu eta eztabaidatu ziren, gauegun indigenen kulturei eta hizkuntzei buruz egiten ari diren esperientziei garrantzi berezia eskaini zitzaizlarik.

Artea, kultura eta identitatea tailerrak landu ondoren, eta eleaniztasunaren beharra ikusi ondoren... soluzioa ez dela batere erraza ondorioztatu zen. Nola eman irteera adostua itxuraz kontrajarriak diren ondoko bi gertakariei?

1.- Gizarteak historian zehar sortu duen hizkuntzen aniztasunaren aberastasuna zaintzea edota sustatzea, alde batetik.

2.- Hizkuntza talde desberdinen artean komunikazioa nola lortu elkartasun integralaren garai berri honetan, bestetik.

Parte-hartzaileek bat egin zuten kulturarik gabeko hizkuntzarik edo hizkuntza neutrorik ez dagoela esatean, hiritar neutrorik ez dagoela esaten den moduan. Gaiari buruzko interesa gero eta handiagoa denez, lantzen jarraitzeko erabakia hartu zuten.

Balioen sinposioaren ondorioak

Aldaketa handiak gertatzen eta prestatzen ari diren unean eta trantsizio garaia bizi den honetan, honako puntu hauek adostu ziren:

- Gero eta behar handiagoa nabarmentzen da eskola, familia, jendarte, komunikabide eta abarren arteko komunikazioa egoteko... Hau da, koherentzia bilatu behar da eragile sozializatzaile guztien artean.

- Hezitzailearen egiteko garrantzitsua azpimarratzen da, bai eskolan jokatzeko duen paperagatik, eta baita beste eragile sozializatzaileengan duen eraginagatik ere.

- Ezinbestekoa da irakasleen prestakuntza indartzea, ezagutza zientifikoa batez ere. Ikuspegi integralaren, integratzailearen eta kultura orokorraren jabe izatea ere bai.

- Jendartearen kulturaztasunean bizi da. Kontraesanak agertzen dira. Hausnarketaren eta eztabaidaren bidez jendartearen hobetzeko balioak lehentasuna izan behar dute.

- Balio gizatiarrak indartzeko beharra dago: duintasuna, elkartasuna, ardua, errespetua, demokrazia, lana eta hiritar formazioa indarkeria amaitu dadin... Eta batez ere, askatzailea izango den formazioa eskaintzea.

- Balioak ereduaren eta praktikaren bidez adierazten dira, teoriak soilik ez baitu zentzu handirik.

- Gurasoen eskolak, kirol jarduerak, parte-hartzea eta eskola komunitatearen bizitza hobetzeko balio duten ekimen guztiak egokiak dira jendartearen hobetzeko.

- Sentikorra, sortzailea eta ikertzailea izatea eguneroko bizitzarako eta etorkizuna prestatzeko balioak dira. Horregatik, egoera berrien eta arazoaren aurrean praktika alternatiboak lantzea, partekatzea eta prestatzea behar-beharrezkoak da.





Oharra: Kubako hezkuntza sistemari buruz gehiago jakiteko ikus Hik Hasi 75. zenbakia (2003ko otsailekoa).

Bigarren Hezkuntzan 15 ikasle irakasle bakoitzeko

Aldaketa sakonak egin ditu Kubako Bigarren Hezkuntzak azken lau urteotan. 12-15 urteko neska-mutilen adinaren berezitasuna kontuan hartuta eta orain arteko ikaste maila baxuarekin kezkatuta, neurri zorrotzak hartu ditu irlako Gobernuak.

- 1.- Ikastaldeak ez ditu 15 ikasle baino gehiago izaten.
- 2.- Ikasgela batean 15 ikasle baino gehiago baldin badaude, 22 adibidez, 2 irakasle tutore egoten dira gela berean.
- 3.- Irakasle bakar batek eskaintzen ditu ikasgai guztiak, Soinketa eta Ingelesa izan ezik.
- 4.- Informatika eta liburutegi orduetan bertako irakasle arduradunekin batera egoten dira gelako tutoreak.
- 5.- Ikasgaiak, beheko argazkian ikus daitekeen bezala, bideoaren bidez lantzen dira. Hau da, bideoa ikusi eta oharrak hartu. Ondoren, komentarioak egin, eztabaidatu eta berriro ikusteko aukera izaten dute.
- 6.- Goizeko 8:00etan hasten dira eskolak, bertan bazkaltzen dute eta 16:30ean dute amaiera.
- 7.- laz amaitu zuen metodo berrian aritutako lehenengo promozioak. Aurreko metodoan aritutakoenak baino askoz hobeagoak izan omen dira emaitzak.



florencio luengo

ELKARRIZKETA

Atlantida proiektuaren koordinatzaile orokorra

“Eskolak herrira atera behar du eta herriak eskolara sartu. Baina, batez ere, eskolak atera behar du”



florencio luengo

E

“Irakasleen formazioa ez da nahikoa. Irakasleen lanak aipatu berri dugun ereduari estuki lotuta egon behar du, ez edukiei. Batuketa eta kenketaren didaktika hobea egin beharko da, baina inguruan gertatzen ari diren funtzio sozialen arabera.”

Maisu, pedagogo, helduen irakasle eta institutuko irakasle izan den gizon hau beste zeregin batean murgilduta dabil azken 9 urtetan, baina hezkuntzatik aldendu gabe: Atlantida proiektuaren koordinatzaile orokorra da.

Ikas komunitateak, hiri hezitzaileak eta antzeko kontzeptuak Atlantida baino ezagunagoak dira, baina gisa bereko proiektuak dira. Oso erlazionatuta dauden mugimenduak dira, osagarriak dira, baina bakoitzak bere erritmoa eta intentsitatea ditu. Atlantidaren zutabea eskola, familia eta herriaren arteko elkarlana da, eta hezkuntza eta kultura demokratikoa eta komunitarioa bultzatzea edo lortzea du xede.

Habia Kanarietan du, lehen kumeak Andaluzian, Extremaduran eta Madrilan. Kume gehiago ere sortzen ari dira.

Kontzeptu horien inguruan eta proiektuak egiten duen ekarpenaz aritu gara Florencio Luengorekin.



Zer da

Atlantida proiektua eta nork bultzatzen du?

Hezkuntza eta kultura demokratikoa eta komunitarioa bultzatzen dituen proiektua da. Marko teorikoan eta garapen praktikoan oinarritutako proiektua.

Espainia osoko pedagogo sare batek eta La Lagunako (Tenerife) talde indartsu batek hausnarketarako eta ikerketarako talde bat sortu zuten. Elkarte independente, legalizatu eta irabazi asmorik gabekoa da. Hezkuntzarekin eta kulturarekin lotutako ekintzak eramanen ditu aurrera laguntza eta aholkuak emanez, planak eginez, administrazioekin hitzarmenak eginez... Berrikuntza demokratikoa edo beste edozer dei geniezaiokeen, baina Atlantida izena ematea erabaki genuen. Zergatik? Eskola-familia-herria eskemarekin lanean hasi zen aitzindarietako bat Tenerifeko Atlantida ikastetxea izan zelako. 1985ean planteatu genuen “herriari irekitako eskola”. Asko gustatu zitzaigun ideia hura eta sortzaileak ezagutu genituen. Horrela, hezkuntzari buruz dugun ideia hari izen bat jarri behar genuen, Atlantida hautatu genuen.

Zein da, bada, hezkuntzari buruz duzun ideia eta Atlantidaren ezaugarri litzatekeena?

Gure lehen eztabaida hezkuntzaren funtzioari buruzkoa izan zen. Egungo munduan hezkuntzaren funtzioa gizarteari laguntzea da, gizarte hobea egiteko. Horregatik deitzen diogu hezkuntza.

90eko hamarkadatik hezkuntzaren egoera konplikatu egiten zela konturatu ginen. Gero eta zailagoa zen irakasleen ikuspuntutik soilik pentsatzea eta mintzatzea. Hezkuntza ez zen formala

soilik, baita ez-formala, informala, familiarena, kalearena, udalarena, kulturarena... Orduan, hezkuntzaz eta kulturaz hitz egiten bukatu genuen. Hezkuntza pixka bat gehiago arautzen duguna izango litzateke, eta kultura jendarteak egiten duen guztia.

Horrela, hezkuntza eta kultura demokratikoaren inguruko kezka genuenez, horren gainean eztabaidatzen hasi ginen, eta hezkuntza eta kultura demokratikoan eta komunitarioan oinarritutako ereduak lantzen hasi ginen inguruna irekitako zenbait ikastetxetan.

Hezkuntza eta kultura horri demokratikoa eta komunitarioa adjektiboak jartzen dizkiozue. Zergatik?


Herritarrak formatzeko benetako heziketak eginkizun partekatua izan behar du ezinbestean, eskola, familia eta gizarte osoaren parte-hartzea eta konpromisoa eskatzen duena. Gainera, herritar demokratikoak hezteko modu bakarra elkarbizitza demokratikoan hezte da, eta hori eguneroko praktikan betetzen dela ikusiz.

90eko hamarkadako globalizazioaren aurrean, helburu bat jarri genuen: nola egin jendea parte-hartzaile egungo homogeneizazioaren eta erabaki guneetako parte-hartze eskasiaren aurrean. Horren aurrean, demokrazia erreala eta parte-hartzailea lortu behar da, besteak beste, hezkuntzan eta kulturaren. Horregatik jarri diogu adjektibo hori.

Demokratikoak esan nahi du gizabanakoa, norbera, errespetatua eta aintzat hartua dela. Eta komunitarioak, ostera, kontzeptu bat gehitzen dio horri: guztion ongizatea xede izanda. Gizabanakoa eta komunitatea biak ziurtatu behar dira.

Nola gaude demokratikotik eta komunitariotik gaur egun? Zein diagnostiko egiten duzu?

Demokraziari dagokionez, garbi dago krisian gaudela, bidegurutzean. Mendebaldeko herrialdeetan oinarritutako parte-hartzerantz urratsak eman di-



ra 40 eta 50eko hamarkadetatik eta Mundu Gerretatik hona: 1948an giza eskubideen deklarazioa...

Zentzu horretan, demokrazia erre-presentatiboaren hobekuntzak eta mugakikusiditugu lehen fasean. Etapa hori gaudituta dago. Horrek uzten du, nahiz eta berandu izan, Balkanetan esku hartzen eta politikaz hitz egiten, edo Afganistanen giza eskubideak direla eta parte hartzen. Nahiago nuke Guantanamo ere gehiago esku hartuko bagenu!

Une honetan garbi dago hori ez dela nahikoa. Ekonomiak, garapen ekonomikoak eta globalizazioaren munduak duten pisu itzelarekin, funtsezkoa da demokrazia erre-presentatibotik demokrazia parte-hartzaile pasatzea.

Beraz, krisi egoerari erantzun behar zaio gizartea gehiago gara dadin. Nola? Proiektuak, plataformak, istorioak... eginez, eta hor gaude gu.

Komunitarioaren diagnostikoa egiten hasiz, komunitarioak adierazten du historia ezin dela definitu sektore baten arabera, ezin dutela idatzi profesionalak, ez intelektualek goitik, ez katedratikoez, ezta auzo elkarteek ere, ez politikariek bakarrik, ez guraso elkarteek... Komunitateak modu koordinatuagoan eta elkarreraginean erabaki behar du zein alternatiba ematen dion egoera berriari, nola egin parte-hartze komunitarioagoa, filosofikoak diruditen eztabaida horiek nola bizi modu komunitarioagoan...

Hezkuntza = "oinarrizko errenta kulturala", aipatzen da Atlantidan. Azalduiguzu ideia hori.

Hezkuntzak oinarritutako printzipio bat du: gizakia elikatzen duela arduratsua, solidarioago eta libreago izateko. Orduan, hezkuntza sakonera handiko putzua da. "Zenbat hezkuntza!", esan genezake. Niri gustatuko litzaidake hezkuntza demokratikoa izatea, giza eskubideetan oinarritua egotea... Baina oinarritutako errenta kulturalaz solasten garenean, kezkatzen gaituena da herritar guztiek oinarritutako hezkuntza edukitzea, hots, herritar guztien hezkuntza deritzoguna eta oinarritutako batzuk ziurtatzen dituen. Oinarritutako horiek zein diren definitu behar da. Oinarritutako kompetentziez hitz egiten da egun. Behintzat, gustatuko litzaidake herritar guztiak, nahiz eta oso desberdinak eta anitzak izan, gai izatea gutxieneko batzuk lortzeko eta horiekin libreago eta arduratsua izateko. Beraz, hezkuntza sistemak eta herritar guztiok gara horren erantzule, hots, oinarritutako errenta hori denek edukitzea guztion ardura da. Egiten ez badugu, bazterketa soziala sortzen da, gaur egun bezala: herritar asko ez dira oinarritutako errenta kulturalera iristen eta ez daude formatuta askeago eta arduratsua izateko.

Hezkuntza maila desberdinak egon daitezke, baina oinarritutako errenta kulturala denentzat bermatu beharko lukete hezkuntza sistemak. Denentza-

“**Herritartasuna partekatutako mementoak dira. Herritartasuna arriskatzen ari gara elkarbizitzeko mementorik ez daukagulako. Plazak, kaleak, fenomenoek, ikerketak... horrek denak definitzen du herritartasuna.**”

ko zokalo komun bat izango litzateke. Oinarrizko soldata soziala bezala. Daurkagun ekonomia liberalean mundu guztiak ezin du eduki hilean 3.000 euroko soldata, baina gosea saihesten duen oinarrizko soldata bat bai. Bada, guk hori nahi dugu oinarrizko errenta kulturalarekin.

Eskola-familia-herria. Zein modutan bultzatzen du Atlantidak hiruren arteko elkarlana?

Hasteko, ikastetxeko batzordeen egoera hobetu eta familiek eta eragile sozialek parte hartzeko egiturak zuzendu behar dira, denek komunitatearen aldeko apustua egin dezaten. Heziketan inplikaturik dauden alderdien elkarlanean sinesten dugu.

“Herritarren Batzordeak” antolatzen ditugu eta bertan parte hartzen dute hezkuntzako eta herriko ordezkari guztiek: zuzendaritza taldeek, ikuskariak, guraso elkarteak, hezkuntza eta gizarte gaietarako zinegotziek, segurtasun arduradunek... Denen artean ingurunearen diagnostiko bat egiten da eta hortik abiatuta plan bat. Gero, plan horren jarraipena eta ebaluazioa egiten dira. Horrek ez du esan nahi talde bakoitzak bere kabuz egiten dituen ekintzak bertan behera utzi behar direnik; aitzitik, orientazio modura balio dezakete ekintza berriak egiteko.

Beraz, talde horiek denak elkarrekin biltzeko eta elkarlanean hasteko, aurretik landu egiten dugu: talde desberdinekin egoten gara euren ezaugarriak eta lana ezagutzeko, sentsibilizazio kanpainak egiten ditugu edota proposamen zehatzak egiten ditugu Atlantidatik.

Garrantzi handia ematen diogu sektore bakoitzak bere lanari dagokion konpromisoa hartzeari: irakasleen lana ordezkazina da, familiaren egitekoak normalean baino espazio eta denbora gehiago hartu behar du eta herriko eragileen zereginak ere bai.

Nola sortzen dira “Herritarren Batzordeak”?

Ezertan hasi aurretik, ordura arte

dauden elkarte eta taldeek egiten dutena aztertzen dugu. Ez dugu proiektu edo zeregin berririk gehitzen, daudenak bideratu baizik. Izan ere, batzuetan norabide zehatzik gabeko jardunak egiten dira. Hortaz, ordenatu, sekuentziatu, sailkatu eta gertatzen denari koherentzia eta zentzua ematen saiatzen gara. Beste modu batera esanda, norabide berean jartzen ditugu.

Etapa honen amaieran ikusten bada Herritarren Batzordea sortu behar dela, sortu egiten da. Laupabost kidez osaturiko batzorde koordinatzailea izaten du eta berau arduratzen da larrialdietako aktibitateak dinamizatu eta koordinatzeaz. Osoko bileran eztaba- datu eta gero erabakitzen da. Beraz, asanblada irekian parte hartzen du gehiengoak heziketa eta gizarte plana garatzeko eta motibatuzeko.

Behin sortuta, zer egiten da Herritarren Batzordean?

Behin hori eginda eta herriko proiektuak eta bitartekoak identifikatu eta baloratu ondoren, hiru urrats dituen eredia proposatzen dugu:

1- Gizarte ereduaren diagnostikoa egitea: arazoak detektatu eta balio alternatiboak mugatu.

2- Hezkuntzako arazoaren diagnostiko integrala.

3- Komunitate herritarrarentzat erronka berri bat: proiektu komun bat partekatzea.

Beraz, hasteko, arazo orokorrak deskribatzen dituzten diagnostiko txikiak egiten dira. Krisian dauden balioak zein diren ikusten da eta horien balioko kausak ere bai. Ondoren, sortzen diren arazoak ikusita, balio alternatiboak pentsatzen dira. Esate baterako, ingurunearekiko identitate faltaren aurrean, ingumenarekiko konpromisoa; pasitibitatearen aurrean motibazioa; agresibitatearen aurrean tolerantzia eta elkarbizitza demokratikoa... Horien artean, eskolak, familiak eta herriak lantzeko bi edo hiru balio lehenesten dira.

Bigarren fasean hezkuntzako arazoaren diagnostiko integrala egiten da, hau da, aurreko etaparen egindakoaren

antzekoa, baina irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan aurkitzen diren arazoak seinalatuz. Aurrena gelako diagnostikoa egiten da, gero familiaren jarraipena eta ondoren ingurune sozialaren egoera. Besteak beste, ikusten da zer eta nola irakasten den, parte-hartze eta antolaketa egiturak, familiaren funtzioa, hobekuntza plan bat aurrera ateratzeko baldintzak eta azpiegiturak... Arlo bakoitzeko diagnostiko txikiak egitea, egoeraren arazoak aztertzea eta alternatibak partekatzea da norberak bere erantzukizunak hartzeko eta besteekin arduratsu jokatzeko biderik onena.


Prozesu honetan guztian, gauza bat eduki behar dugu gogoan, ahaztu gabe: hobe dela plan soil eta zehatzak egitea, zeregin gutxi baina ongi eginak izatea, alegia.

Orain arte, beraz, hainbat arazo komun inguruko hausnarketa eta lan talde espezifikoei aurrera eramateko alternatibak planteatu dira. Proiektu positibo bat egitea falta da, ilusioa sortuko duen amets antzeko bat, herri, auzo edo eskualde batean elkartzeko lekua edo ekintza komunak sortzen lagunduko duen zeregin kolektiboa. Eta hori izango litzateke 3. faseko zeregina.

Zein gai lantzen dira Herritarren Batzorde horietan?

Ikastetxeek, guraso elkarteek eta zerbitzu sozialek aurretik onartuta dituzten lan egitasmoak ez ditugu asko aldatzen. Baina hasierako fasean egunerokotasunetik begirada altxatzeko aukera emango dieten hausnarketak egiteko proposatzen diegu. Horrek, eguneroko arazoak arazo globalekin erlazionatzeko aukera ematen du. Azken finean, gure jardun profesionala hezkuntza eta gizarte eredu baten azpian baitago.

Baina abiapuntua beti arazo zehatzak, errealak, egunerokoak dira. Pentsa Atlantidatik honako hau proposatzen dugula: "hezkuntza eredu birtentsatuko dugu, eta horrek elkarlan bat eskatzen du, eta baita gizakiaren garapen libre eta kritikoa errazten duten



oinarrizko aprendizaien gaineko ikerketa bat ere. Curriculum diseinu berri bat edo balioak zehar lerro moduan lantzea eskatu behar dugu, herritartasunaren balioak indartzeko, beharrezkoak baitira ikastetxe, auzo eta mundu zoriotsuagoa lortzeko". Diskurtso ederra izan liteke, baina zerikusi gutxi dauka jolaslekuetan, korridoreetan, geletan, etxeko egongeletan, kaleetan edo plazetan gertatzen denarekin. Askoz ere egokiagoa izango da eguneroko arazoak aztertzei hastea eta ondoren plan komun bat egiten lagunduko duten diagnostikoak egitea.

Eskola-familia-herriaren artean egindako elkarlanaren adibide batzuk emango al dizkiguzu?


Esperientzia askotarikoak eduki ditugu. Esate baterako, leku batean guraso elkarteak proposatu zion gai orokor bat ikastetxeari; interkulturalitatea. Ikastetxeak, Herritarren Batzordearekin batera, herrian dauden kultura desberdinak ezagutzeak eta trukatzeko dakarren aberastasuna bizitzen eta ikertzen du.

Lanzaroteko Mala herrian, adibidez, Las Mercedes ikastetxeko zuzendaritza taldeak eta guraso elkarteak kotxinilaren laborantza berreskuratzeko proposamena egin zion familiei, herritarrei eta udalari. Proiektu bat egin zuten, ikastetxean baratza bat egin, herriko nekazariarekin landatu kotxinila,

gero jasotzeko behar zituzten tresnak egin tailerretan (goilarak eta zakuak), zalantzak galdetu nekazariari, udaletxera joan eta arazoa planteatu (agintariak inplikaturaz), kotxinila jaso, lehortu eta laborategian tinta egin, agintariarekin eta herritarrekin proposamenak egin eta konpromisoa hartu horiek aurrera ateratzeko (museo bat egitea, kotxinilaren ibilbidea, ekoturismoa...). Denek hartu zuten parte. Horrek guztiak, nola ez, herriaren identitate kulturala aberastu egin du eta garapen sozial eta ekonomikoa ekarri ere bai zenbait arlotan, hau da, zenbait lanpostu sortu dira ekintza berri horietan. Azken finean, Atlantidatik bultzatzen denaren adibide garbia da: eskola eta hezkuntza bizia, inguruko gertaera sozialei eta kulturei lotua. Amets txikiak errealitate errazetan bihurturik.

Hori da gure ametsa: ikastetxeek utz dezatela poliki-poliki beren gehiegizko ohitura akademizista, horrek ikasketa prozesuko jardura gehienak testu liburuetara mugatzen baititu. Gidatutako esperientzien bitartez, ohitura bihur dadila errealitatearekin lotutako proiektuak egitea. Horrenbestez, beharrezkoa da hezkuntza komunitate osoak landutako kulturarekin lotura duten proiektuak izatea. Modu horretara, eskolak, ingurunerarekin batera, proiektuen eta elkarlanaren bitartez konponduko litzuzke arazoak eta, aldi berean, ikasleen gaitasunak garatzea

florencio luengo



lor-
tuko lu-
ke, denen ongi-
zatea xede izanik. Ikasketak egunero-
kotasunarekin lotuta egon behar dute,
baina ez eskolako egunerokotasunare-
kin, inguruko errealitatearen egunero-
kotasunarekin baizik.

Zer aldaketa ikusi duzue orain arteko esperientzietan?

Lehen aldaketa koordinazioa da:
orain koordinatuago daude. Horrek
esan nahi du herri edo auzobatean hez-
kuntza eta kultura arloan gertatzen den
ororen inguruan koordinatuta daudela
eta arduradun nagusiak hilerok elkar-
tzen direla gai horietaz hitz egiteko eta
hausnartzeko.

Egiten dugun lehen gauza datuen
bankua da, hots, dauden datuen jaso-
keta eta oraindik ezagutzen ez dutene-
na. Izan ere, gerta liteke herri batean,
adibidez, etorkinekin lan egiteko mo-
duagatik saria jaso duen ikastetxe bat
egotea eta ez jakitea! Horren berri iza-
tea da lehen xedea.

Orain ari gara ikusten zer poten-
tzialtasun daukaten hiru sektoreek (es-
kola-familia-herria) plan bat eztabaida-
tzen hasten direnean eta elkarerragine-
an lantzen dutenean. Esate baterako,
guraso elkarteak ahula dela eta indartu
egin behar dela edo zentrorra gutxi eta
gaizki joaten direla eta hori aldatu egin
behar dela erabakitzen bada, bistakoa
da familia eta eskolaren arteko diskur-
tso berri bat eraikitzen ari dela.

Horrez gain, zenbait lekutan urrats
gehiago ematen hasi gara lehen aipatu
ditugun hiru fase horiek birbiltzeko.
Beste eztabaida bat egin nahi dugu de-
nen artean: alde batetik, eta Europako
eta estatuko eztabaidarekin bat eginez,
oinarizko ikasketak eta oinarizko
kompetentziak berrikusi beharra dago

eta herritarren curriculum komun bat
egin; eta bestetik, osagarri gisa, parte-
katu beharreko konpromiso edo kode
etikoaren gainean ere eztabaidatu be-
harko litzateke, herritarren estatutuak-
edo eratuz.

Zer ezaugarri izango lituzke herritarren curriculum komun horrek?

Curriculum gertukoak, herrikoak,
eskualdekoak izatea garrantzitsua da.
Hau da, eskolan ikasten denak, edu-
kiek, eskolatik kanpoko errealitateare-
kin lotura eduki behar dute. Ikasten du-
tenak bizitzeko balio behar die. Horre-
gatik, oinarizko eduki horiek zein di-
ren erabakitzeke, eskolak, familiak eta
herriak, hirurek hartu behar dute parte,
Herritarren Batzordeak definitu behar
du. Hori da garrantzitsua eta lehen
ezaugarria. Europako proposamena
bere horretan onartu dezakegu edo gu-
re hausnarketa propioa egin. Agian
kompetentzia-ikasketa berak zerrenda-
tuko ditugu azkenean, baina desber-
dintasuna horra iristeko bidean egon-
go da, kolaborazio lan baten ondorioz
iritsiko gara gu, eta hori da konpromi-
soaren eta hobekuntzaren oinarria. Gi-
zarte osoak esku hartu behar du ikaske-
ta berriak ezartzeko prozesuan, hez-
kuntza komunitateko kide guztietatik
hasi eta familia eta herritar guztietar-
raino.

Prozesu horretan zer egingo genu-
ke? Proposamen ofizialen inguruko
hausnarketa egin, curriculum berria
egiteko eskola-familia-herriarekin tai-
lerrak antolatu, Europako eta estatuko
legeek zer eragin duten ikusteko prak-
tikak egin, gelako, ikastetxe, familia-
ko eta herriko zeregin zehatzak defini-
tu eta plan alternatiboak eta konpromi-
soak zehaztu.

Hori guztia eginda curriculum
proiektuaren ildoak zehaztuko lirate-
ke, eta horrekin lotuta, gelan, familian
eta herrian garatzeko zereginak eta es-
perientziak.

Ikuspegi etikotik, herritarren estatutuak sortu beharko

E

“Garrantzi
handia ematen diogu
bakoitzak bere lanari
dagokion konpromisoa
hartzeari: irakasleen
lana ordezkazina da;
familiarren egitekoak
normalean baino
espazio eta denbora
gehiago hartu behar
du eta herriko
eragileen zereginak
ere bai.”

”

liratekeela esan duzu. Zer esan nahi duzu horrekin?

Beste gizarte mota bat nahi baldin badugu, oso garrantzitsua da herritarrek errespetua edukitzea, mundu solidarioago batekin konpromisoa edukitzea, giza eskubideen alde aritzea... Horregatik, etikari garrantzia eman behar zaio ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan. Denok bete behar ditugu printzipio etiko batzuk, eta horiek estatutu batean defini daitezke, hori da gure ideia. Hasi baino ez gara egin, eta hor landuko lirateke profesionalen, ikasle- en, familien eta arduradun politikoen kode etikoak.

Aipa itzazu herriarekin elkarlanean aritzearen onura batzuk.

Osasun, aisia... horrelako gaiak lantzen direnean, bakoitzak bere alde- tik erantzun beharrean, denek batera egin dezakete. Adibidez, osasun publi- koa hobetzen ahalegintzen diren pro- gramak, hitzaldiak... eskolatik kanpo egiten badira, ez dira konturatzen nola- ko potentzialtasuna dagoen horiek ge- lara eramanda. Pentsa zenbat gaitasun galtzen duen GKE batek lana eskolatik at egiten badu!

Eskolak kalera atera beharko luke. Bizitzako gaiak planteatu eta gelara sar- tzen dituen eskolak bere inguruneare- kin kontaktzen ez badu, haustura sor- tzen da. Gainera, gizartea eta parte-har- tze soziala oso urrun gelditzen dira haustura hori gertatzen bada.

Oso interesgarriak dira denek bate- ra landutako proiektuak. Azken finean, herritartasuna partekatutako memen- toak dira. Herritartasuna arriskutzen ari gara elkarbizitzeko mementorik ez daukagulako. Elkarbizitzeko une ba- karra agurrekoa da, hiletakoa. Une ga- rrantzitsua da hori ere, baina kasik he- rritarrak leku batean biltzen dituen une bakarra. Plazak, kaleak, fenomenoak, ikerketak... horrek denak definitzen du herritartasuna.

Irakasleen formazioa ez dela nahikoa diozu.

Ez, ez da nahikoa. Irakasleen lanak



aipatu berri dugun ereduari estuki lotu- ta egon behar du, ez edukiei. Bestela, batuketaren didaktika hobea nola egin erakusten arituko ginatke. Batuketa eta kenketaren didaktika hobea egin beharko da, baina inguruan gertatzen ari diren funtzio sozialen arabera. Hori irakasleekin bakarrik egitea ezinezkoa da, zeren fenomeno hau bizitza eta or- dutegi guztirako fenomeno da. Horre- gatik, irakasleak, guraso elkarteak eta inguruko programa sozialak, denek egon behar dute prestatuago. Eredua berrikusi egin behar da.

Zer desberdintasun dago ikas komunitateen, hiri hezitzaileen eta Atlantida proiektuaren artean?

Desberdintasunak baino gehiago, bakoitzak garapenaren ardatza ele- mentu batean jartzen du eta besteek beste batean, normala den bezala his- toria desberdina dugulako.

Guk kezka handia daukagu gelare- kiko eta gelan gertatzen denarekiko, fa- milian gelan sartuta, betiere. Ikas ko- munitateek oso ondo azaldu eta landu dute alderdi hori.

Atlantidak eskola eta bizitza azpi- marratzen ditu. Eskola auzora ateratzea eta auzokoa gelan sartzea. Baina batez ere ateratzea.

Ikas komunitateek eta Atlantidak eskola demokratikoa (eskola-familia- herria) aipatzen dute, eta hiri hezitzaile- ek, aldiz, diskurtso berritzaileagoa eta zabalagoa daukate: hiriak nola hezten

duen eta nola planteatzen dezakeen parte- hartze handiagoa, baina ez hezkuntza eta kultura arloan soilik, baizik eta arlo guztietan.

Bakoitzak bere erritmoa eta inten- tsitatea ditu oso erlazionatuta dagoen mugimenduan. Osagarriak dira.

Aurrera begira, helburuetako bat eztabaida soziala bultzatzea duzue. Zergatik ematen diozue halako garrantzia horri?

Gure ideiak, ikerketak eta hausnar- ketak Hezkuntza eta Kultura Ministe- rioari, hezkuntza sailei, udalei, guraso elkarteei eta abarri helarazten dizkiegu, horietan denetan eztabaida dadin zer hezkuntza, zer kultura, zer gizarte, zer funtzio, zer oinarriko errenta kultu- ral... nahi dugun.

Duela bi urte kanpaina bat egin genuen honako lelo honekin: "herritarta- suna, ikasgai bat baino askoz gehiago". Orain eskola-familia-herria-adminis- trazioa gaiaren inguruan hitz egiten ja- rraituko dugu, eztabaida soziala eragin asmoz. Zergatik den hori hain garran- tzitsua? Eztabaida sozial eta politikorik sortzen ez bada, eliteen artean gelditu- kodelako. LOGSErekin gauza bera ger- tatu zen. Irakasleen eztabaida izan zen, gizarteari ez zitzaion helarazi zerbait in- teresgarriaren aurrean zegoela; alegia, eskola jendarte osoari hedatzeak bere ondorioak ekarriko zituela; bere aban- tailak eta bere ondorioak. Ona da gizar- teari horren berri ematea.

Gurasoen eginbeharrak murgiltze ereduan

Hiriondo, Poloko ikastola (Baiona)

Baionako Hiriondo ikastolako Euskaraz Bizi taldeak mintzaldi interesgarria antolatu zuen honako gai honen inguruan: gurasoen eginbeharrak murgiltze sistema batean eskolatutako haurren laguntzeko orduan. Horretaz mintzatzeko bildu zituzten mahai baten bueltan Itziar Idiazabal EHuko irakaslea, Amaia Colina Seaskako Pedagogia aholkularia eta Soumauneau Seaskako familia ohia. Lehenengo biek alderdi teorikoa landu zuten, eta Soumauneau familiak bere esperientzia izan zuen hizpide. Bertara hurbildutako gurasoek abagunea baliatu zuten euren galderak, iritziak eta kezak denen artean partekatzeko.

1969an Seaskako lehen ikastolak sortu zirenean, helburu nagusia jatorriz ama hizkuntza euskara zuten haurrei euskaraz eskolatzeko aukera eskaintzea zen. Haurrak jatorriz euskaldunak ziren, eta D eredua baliatzen zen. Urteek aurrera egin ahala ikasle kopurua emendatu egin da, eta jatorriz euskaldunak ez direnak sartu dira tartean. Horrela, bi ikasle mota daude egun:

1-Etxetik jatorriz euskaldunak direnak: beren ama hizkuntzan eskolatz

dira, eta poliki-poliki, beste hizkuntza bat sartzen joaten dira, frantsesa.

2- Etxetik jatorriz frantsesdunak (edo beste eleddunak) direnak: ama hizkuntza ez dute euskara. Beraz, sartzen dira eskola batean non bertako hizkuntza ez den euren etxekoa. Geroago hasten dira euren ama hizkuntza, frantsesa, lantzen.

Aldaketa horrek eragina izan du ira-

kaskuntza-ikaskuntza prozesuan eta hizkuntzaren trataeran. Ondorioz, irakasleek ere egokitu egin behar izan dute banan-banako trataera emateko.

Ama eskolatik lizeoraino, komunikazio tresna euskara da Seaskako zentroetan: gaiak euskaraz ikasten dira eta eguneroko bizitza euskaraz egiten da gelan, kantinan, jolastokian...

Maila		Euskaraz	Frantsesa
Ama Eskola	Osoa 3 urtez	Dena	Batere
Lehen Maila	1. urtea	Dena. Irakurketa-idazketa garaia	Batere
	2. urtea	Dena	3 oren astean
	3. urtea	Dena	5 oren astean
	4. urtea	Dena	8 oren astean
	5. urtea	Dena	8 oren astean
Bigarren Maila	6. urtea	Dena	5 oren astean
	5. urtea	Dena	4 oren astean
	4. urtea	Dena	4 oren astean
	3. urtea	Dena	4'5 oren astean
Lizeoa	2. na	Dena	6 oren astean
	1.S /Zientifikoa	Dena	4 oren astean
	1.ES /Ekonomi soziala	Dena	4 oren astean
	1.L/ Literatura	Dena	6 oren astean
	Terminal S	Dena	3 oren astean/filosofia
	Terminal ES	Dena	4 oren astean/filosofia
	Terminal L	Dena	12 oren astean/filosofia eta literatura

Nicole Soumauneu: “naturaltasun osoz egin dugu gure seme-alaben jarrai- pena. Guk euskararik ez jakitea ez da arazo izan”.

Ama Eskolan murgiltze osoa euskaraz egiten da eta irakasleak kontuan hartzen du haurren ama hizkuntza, lagundu ahal izateko. Xedea da haurrak emeki-emeki uler dezan eta testuinguru horretan interakzioak euskaraz izan daitezten. Garrantzitsua da haurrak partaide izatea eta interakzioa izatea. Zeren interakziorik ez bada, entzuteaz aparte haurren aldetik ez bada praktikarik edo produkziorik, haurrak nekez ikas dezake egoera pasiboan. Hori oso-oso garrantzitsua da.

Lehen Mailako lehen urtea irakurketa-idazketa garaia da, eta hori euskaraz egiten da. Gero, horrek balio du frantseserako. Ondorengo urtean, 3. orenaz lantzen da frantsesa, batez ere ahozko hizkuntza. 3. urtean bost orduz lantzen dira ahozko hizkuntza, idazketa eta irakurketa. Eta Lehen Mailako azken bi urteetan zortzi orduz. Hor frantses hizkuntzaren trataera osoa lantzen da, hots, metahizkuntza.

Bigarren Mailan eta lizeoan kolegio eta lizeo frantsesetan dituzten frantses oren berak lantzen dira, gai guztiak, aldiz, euskaraz dira lantzen.

Hizkuntzak lantzerakoan garrantzi handia ematen zaio testuinguruan ondo kokatzeari. Hau da, haurren artean interakzioak eta didaktika arloko jarduerak lantzen direlarik, beti komunikazio tresna horrek zentzua izan behar du haurrentzat. Egoerak ez dira artifi-



zialki pausatzen, hizkuntza bat ikasterakoan oso-oso garrantzitsuztat hartzen baitute bere testuinguruan kokatzea.

Gurasoen kezka nagusiak

Azterketak

Gai izanen al dira Baxoa frantsesez gainditzeko?

Amaia Colina Seaskako pedagogia aholkulariak lasai erantzun zion gurasoen galdera horri mintzaldian. “Baxoa egiteko unera iritsi baino lehen, Lehen Maila bukatutakoan, ikasleak gai izaten dira, hala nahi izanez gero, sare frantsesean sartzeko. Kolegioko 3.era iristen direlarik, BEPC delako azterketa dago. Matematika eta Historia euskaraz pasatzen dute, eta Frantsesa, frantsesez, noski. Baxoan Historia eta Geografia (eta Euskara gaia ere bai, bistan dena) euskaraz egiten dituzte, eta beste gai guztiak frantsesez. Beraz, erran nahi du

gai direla Baxoa frantsesez pasatzeko, hots, elebidunak direla”.

Etterako lanak

Nola lagundu seme-alabei etterako lanak egiten, gurasoek euskaraz ez baldin badakite?

“Hasteko, etterako lanak haurrek behar dituzte egin, ez gurasoek” dio Amaiak. “Hor, noski, garrantzitsuena, hizkuntzarekin ezin bada lagundu, jarrerarekin laguntzea da. Galdetzea zertan diren, ea ulertzen duten... Gainera, haurrek jadanik kontzeptuak landuta izan behar dituzte gelan, eta etxean aplikatu egiten dituzte, ez dira kontzeptuak etxean sortzen. Garrantzitsuena da sentitzea norbait badela gibeletik, komunikazioa egotea gurasoen eta seme-alaben artean”.

Mintzaldian zen guraso ohi batek halaxe zioen: “Ezagutu nuen amona batingelesez ipuinak irakurtzen zizkio-





Soumauneu familiako Marioj alaba, Jean Michel aita eta Nicole ama euren esperientzia kontatzen.

na bilobari ingelesik jakin gabe. Beraz, euskararekin ere egin dezakegu”.

Soumauneu familiaren esperientzia

Marion Soumauneu 1980. urtean hasi zen Uztaritzeko ikastolan. Handik Kanboko kolegiara pasa zen 1989. urtean; orduan Iparraldeko kolegiobakarra zen, eta hiru probintzietatik joandako guztiak biltzen zituen. Bere gelan 21 ziren, denak euskaldunak edo familia euskaldunetakoak, hiru izan ezik, bera tartean. Kolegioko ikasketak bukatu ostean, Seaskak ireki berri zuen Baionako lizeoan jarraitu zituen ikasketak. Ondotik, Baxoa pasa eta unibertsitate ikasketak egin zituen.

Ibilbide guztiari begiratuta, garbi dio: “Ez dut uste zailtasun berezirik ukan dudarik euskara ikasteko beste ikaskideekin konparatuz. Nahiz eta gurasoek euskararik ez jakin, euskarak bazuen bere lekua gure etxean. Aitak esaldi solte batzuk esaten zituen: ‘ogia nahi dut’ eta horrelakoak. Erritual modukoak ziren, eta horrela euskarak bere lekua zuen”.

Etixerako lanei buruz ere gurasoen aldetik behar zuen laguntza jaso duela dio: “Ulertzen ez nuelarik, gurasoei galdegiten nien. Kontsigna ez zuten ulertzen; orduan, nik itzulpena egiten nien. Horrek lagundu egiten zidan gehiago ulertzen. Eta ez nuelarik ulertzen, biharamunean andereñoari erraten nion ez nuela ulertu, eta besterik ez. Ez da zaila-

goa izan, ez niretzat eta ez nire anaia-arentzat”.

“Naturaltasun osoz egin dugu gure seme-alaben ikasketen jarraipena, eta hori da garrantzitsua” dio Marion amak. “Galdetu, interesa agertu, zer ikasi duzu, zertan ari zara... interesa eta komunikazioa dira nagusi, eta hizkuntza bigarren mailan gelditzen da. Guk euskararik ez jakitea ez da arazo izan. Guraso gisa ez gara frustratuta sentitu. Iruditzen zitzaidan gauza batzuetan ezingo niela lagundu, baina ez euskaraz eta ez frantsesez ere. Adibidez, kimikako gaietan. Ez nuen mailarik”.

Gurasoek euskararik jakin ez arren, garbi zeukaten seme-alabei euskara ikasteko aukera eman nahi zietela. “Guk ez dugu menperatzen eta ezin dugu egin, baina zuek bai; aprobeitza ezazue” erraten genien. Urtebetetzeko festetan ere gauza bera erraten genien, bai beraiei eta bai beren lagunei. Guk euskaraz hitz egiteko aukera eman nahi genien eta horrekin harro sentitzea nahi genuen”.

Edonola ere, Seaskaren hautua ez zela hizkuntzaren hautua soilik izan dio aitak, baizik eta pedagogia baten hautua. “Seaskaren filosofia oso garrantzitsua izan da guretzat: talde lana, partekatzea, irakasleen laguntza... ez zen elitismorik, komunikazioa zen ardatz. Horregatik inplikatu ginen hainbeste” dio aitak. “Pentsa, Uztaritzeko ikastolan euskaraz ez zekien lehen lehendakaria izan nintzen. Eta Seaskako Peda-

gogia Batzordean gauza bera” dio irribarrez. ●



Euskaraz Bizi taldea

Hiriondo ikastolako Euskaraz Bizi taldean lau guraso dabilta buru-belarri iaztik: Pantxika, Nathalie, Cristina eta Maika. Bizitasun eta bultzada handia eman diote taldeari, eta mintzaldiak, ekintzak, idazkiak, animazioak... antolatzen dihardute. Betiere xedea ahaztu gabe: euskararen erabilera bultzatzea bai ikastolan eta bai ikastolatik kanpo. Horretarako, gurasoen partaidetza bultzatzea dute erronkatzat. “Zeren ez dute asko parte hartzen gurasoek. Eramaten dute haurra ikastolara, baina ez dute kontuan hartzen zinez komunitatea osatzen dugula eta gurasoak direla komunitate horretako bihotza, izugarri paper inportantea dutela Seaskak lan egiten duen proiektu horretan”.

Eskolako Agenda 21 programa munduan zehar (II)

European



Jose Manu GUTIERREZ

INGURUGELAKO 2006-05eko IKERKETA TALDEKO KIDEA

Eskolako Agenda 21 dugu hizpide oraingo honetan ere. Aurreko zenbakian EA 21 programa munduan zehar nola garatzen ari den aipatu genuen. Oraingo honetan, European kokatuko gara, eta zer, non eta nola ari diren aurrera eramaten ikusiko dugu.

Forest-school, Green-school, Eco-schools, Model School, Outdoor-school, Eskolako Agenda 21... etorkizun iraunkor baterako programa europarrak dira. Eskolako Agenda 21 (EA21) European ezik mundu mailan ere hazten ari den ingurumen hezkuntzako programa bat da, non hezkuntza komunitateak -lan sistematizatu baten ostean- eskolaren eta inguruaren (auzoa, herria edo hiria) aldeko ekimenak garatzen dituen. Urruneko errealita-



Jon BENITO

INGURUGELAKO 2006-05eko IKERKETA TALDEKO KIDEA

teetatik hurbileko errealitateetara abiatuko gara:

- Itsaso Baltikoaren inguruan dauden 11 estatuak (**Danimarka, Estonia, Finlandia, Alemania, Islandia, Letonia, Lituania, Norvegia, Polonia, Errusia eta Suedia**) *Baltic 21 for Education* (Baltic 21 E) iraunkortasuna sustatzeko ingurumen hezkuntzako (IH) programa garatzen dute. 41.000.000 ikasle eta 4.000.000 irakasle daude inplikaturik. IHko programa koordinatu handi horren atzean daudenek sareko lana egiten dute, helburu berdinekin baina bakoitza bere testuingurura egokituta.

- **Erdialdeko** eta **Ekialdeko** European, *Greenway* elkarrekin (*Central and East European Network of Environmental NGOs* -Erdialdeko eta Ekialdeko Europako Ingurumeneko GKEen Sarea) bultzatzen du EA21 programa.



Ritxi HERNANDEZ

INGURUGELAKO 2006-05eko IKERKETA TALDEKO KIDEA

Adibide bat **Poloniako** *Agenda 21 na szkola* da, eta helburu hauek ditu: eskolaren ingurua hartzea (auzoa, herria edo hiria), ingurumen diagnostikoa egitea eta arriskuak aurkitzea. Lana bukatzean ikasleek beraien *Green books* (liburu berdeak) prestatzen dituzte, non landareei, animaliei, urari eta hondakinei buruzko informazioa agertzen den eta ikasgelako ebaluaziorako baliagarriak diren.



Helburu nagusi gisa ikasleen ezagueren, jarrerren eta ideien aldaketa; ikasleen programarekiko autoebaluazioa; eta irakasleen programaren ebaluazioa dauzkate. Eta baita eredu eta gida metodologikoak ateratzea, beste erakundeak mobilizatzea (eco-embalages, FEEE, Unicef...), estatu mailan esperientzien sare bat egitea eta EA 21i buruzko Europako Mediterraneo inguruko sare bat osatzea ere.

Espanian ondorengo esperientzia hauek aurki daitezke:

- Euskal Autonomia Erkidegoarekin batera aitzindari eta erreferentzia **Bartzelonako Agenda 21 Escolar** programa da. Mota guztietako ikastetxeentzat da, Udalak bultzatutakoa. Udalak hezkuntza, partaidetza eta gizarte inplikazioa garatzen duen proiektu horretan parte hartzerantz animatzen ditu ikastetxeak; IHn ikastetxe askok egiten duen lana aitortzeko, sustatzeko eta bultzatzeko eta hiriaren eta eskolaren arteko loturak sendotzeko lantzen da programa. 2001-02 ikasturtean hasi zen esperientzia hori, eta egun Bartzelonako 184 ikastetxe eramaten dute aurrera egitasmoa. Prestakuntza aldetik, Hilda Weissman-ek ateratako gidaz gain, honako hauek dira planteatzen diren pausoetako batzuk: lan egiteko esparru komun bat (talde proiektua); material didaktikoak eta gidak; aholkularitza tekniko eta pedagogiko pertsonalizatua eta iraunkorra; informazioarako zerbitzu iraunkor bat... Hezkuntza komunitateari zuzenduta dago, eta ikastetxe bakoitzak bere erara eratzen du.

Programaren zerbitzura hainbat baliabide daude: lan proposamenak eta berriazko baliabideak, dokumentazio zentro bat, telefono bidezko informazio etengabea, hamabostaldiko buletin bat programaren webgunean, ikastaroak, mintegiak...

- **Kataluniako Escola verda** programa, unibertsitatez kanpoko ikastetxeei zuzenduta. Generalitateko Hezkuntza eta Ingurumen Sailek eta Institut Català d'Energiak bultzatzen dute, IHko Kataluniako Elkartearen laguntzarekin. Konpromiso bat hartzen da: udalareki-

- **Moldavian**, aurreko ikasturtean hasita, 4.500 ikasle ari dira 15 udalerritan (TA21ekin) EA21 garatzen. Ikasleen lanak *Green book* setan agertzen dira.

- **Alemanian** *Agenda 21 in der Schule* garatzen ari da 550 ikastetxe baino gehiagotan, TA 21 ezartzen ari diren 47 udalerritan. Programa Hezkuntza eta Ingurumen Ministerioaren laguntzarekin garatzen da. Ikastetxeek *Etor-kizunerako eskola* ziurtagiria lortzen dute programa bukatzean. Esperientzia bitxi bat badago, *EA 21 Kafea* izenekoa. Eskolaz kanpokoa da, bereziki TA 21en dabilzan ikasleen parte-hartzea bultzatzeko egin. 600 eskola baino gehiago daude Eco-schools programan sartuta (*Umweltschule in Europe*), eta -hau bai bitxia- *Eskolako Agenda 21 Bandera* ikurra lor dezakete.

- Urruneko beste esperientzia batzuk hauek dira: **Suediako** *The Green School Award* programa, **Danimarkako** *Green Education and Environmental Qualifications* programa eta **Lituaniako** *EA 21*.

- **Italiako** *Agenda 21 Scuola* oso hedatuta dago, ia eskualde guztietan dago. 1999-2000 ikasturtean hasi zuten probintzietako erakundeek, *Informazione de Educazione Ambientale-INFEMA* erakundearen laguntzarekin. Antzeko ingurumen kudeaketa sistema (EMAS) garatzea proposatzen da. Programak ebaluatzeko Europako Ingurumen Agentziak aldarrikatzen

dituen adierazleak erabiltzen dira: Presioa-Egoera-Erantzuna (PEE). *Presioa* gizakiak bere jardueraz sortzen duen efektua da (kontsumoa, hondakinak, kutsadura...); *egoera*, ingurumenaren kalitatea (airea, ura, lurzorua...); eta *erantzuna*, egiten diren ekimenen eraginkortasuna (TA 21ekiko loturak, egindako jarduerak, herrian beste ikastetxeekin aurrera eramandako ekimenak...). EA 21 IH Ingurumen Hezkuntzako fruitutzat hartzen dute. Programa honek aldaketa imajinatzea eta proiektatzea bultzatzen du hiru esparrutan (eskolaren kudeaketan, curriculum-ean eta metodologian); eta baita hezkuntza komunitatearen eta lurraldearen arteko harreman dinamikaren aldaketa imajinatzea eta proiektatzea ere. Filosofikoki hezkuntza paradigma eraikitzailearen alde agertzen da.

- **Portugalen** *Agenda 21 Escolar* eta *Eco-escola* proiektuak oso lotuta daude. Bertan Eco-schools-en ildoari jarraitzen diote, baina inplikazio zuzena daukate ingurumen hurbilarekin. Gainera, TA 21ekin lotuta, *EA 21 Eguna* ospatzen dute. Portugalen 464 ikastetxe daude programan. *TA 21 Forume* tik EA21 programa bultzatu nahi da, sariak emanez eta Nazio Batuen laguntza bilatuz.

- **Frantzian** *Experimentation d'Agenda 21 d'établissements scolaires* egitasmoa garatzen ari dira Hezkuntza Ministerioak bultzatuta. 100 ikastetxe inguruk daramate aurrera programa.

ko koordinazioa tokiko hobekuntzan. Pasa den ikasturtean 233 ikastetxe aritu ziren programaren barruan. Generalitateko Hezkuntza Sailak *Escuela Verda* labela ematen du (plaka bat). Urtero *Escuelas Verdas Foruma* elkartzen da, urtean behin, esperientziak trukatzeko.

- **Kantabrian**, Hezkuntza Sailak bultzatuta, deialdi bat zabaldu da unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoentzat, hiru urtean (2005-08) garatzeko programa baterako. Ezinbestekoa da udal TA 21en sartuta egotea eta ez dago diru laguntzarik. Helburu nagusiak udalerrinari eta ikastetxeari buruzko erabakiak hartzeko mekanismoak sortzea eta TA 21eko Foroetan parte hartzea dira. Iaz 15 ikastetxe sartu ziren. Lantzen diren gaiak kudeaketa iraunkorra, curriculumaren berrikuntza eta parte-hartzea dira.

- **Guadalajarako** Diputazioak EA 21 programaren garapena bultzatzen du bere probintzian, ADEAC (Asociación de Educación Ambiental y del Consumidor) elkartearekin batera, ikastetxe guztiei diru laguntzak eskainiz. Esperientzia hori 2004-05 ikasturtean hasi zen 4 ikastetxerekin eta 2005-06an 10 ikastetxerekin jarraitu zuen. Programaren balorazioa onazanez gero, Diputazioak ematen duen Bandera Berdea lor daiteke.

- **Galizian** unibertsitatez kanpoko ikastetxeei zuzentzen zaie EA 21 programa eta Ingurumen eta Hezkuntza Sailak bultzatutakoa da, baina diru laguntza eta prestakuntza berezirik gabe. Gida bat publikatu dute (Bartzelonako gidan oinarrituta) eta ikasturte honetan 25 ikastetxe inguru ari dira programa egiten. Asmoa ikasturte honetan TA 21ekin lotura egitea da.

- **A Coruña**ko udalak DBHko bi mailatarako EA 21 programa eskain-



tzen du. 2002-03 ikasturtean 3 ikastetxek eta 300 bat ikaslek hartu zuten parte; 2003-04an, 6 ikastetxek eta 500 ikasle inguruk. Ebaluaziorako Europako adierazleetan oinarritzen dira. Baliabide gisa *Irakaslearen Gida* eta *Ikaslearen koaderno* erabiltzen dira, eta udalerriko buletinak. *Ikaslearen koadernoaren* barruan "zure aztarna ekologikoa aztertu" atala agertzen da, era egokitu eta errazean garatua.

- **Valentziako** Autonomia Erkidegoko eskola askotan *Recicla l'escuela* programa garatzen da; adibidez, Castelló lurraldean 50 zentro baino gehiagok hartzen dute parte. Helburua da eskolako ingurumen kudeaketa hobetzea eta iraunkortasunaren aldeko ekintzak sustatzea. Ikastetxeetako hezkuntza komunitateari, udalari eta tokiko pertsona eta elkarte guztiei zuzenduta dago.

Programaren babes ekonomikoa Caja de Ahorros del Mediterráneo hartzen du bere gain eta prestakuntza, aholkularitza eta jarraipena Alcoy, Gandía eta Torrenteko CEFIREk (*Centros de formación y recursos educativos*; hemengo Berritzeguneen parekoak).

Jasotako informazioen artean, beste programa batzuk ere agertzen dira EA 21 izenarekin, baina ez ditugu aurrekoekin sartu, herriarekin edo hiriarekin ekimen zuzenik garatzen ez dutelako. Esate baterako, Madrilgoa, Castilla-La Manchako herri askotan garatzen

dena, Lanzarotekoa eta Aranda de Duerokoa. Edonola ere, gero eta *eco-school* (eko-eskola) gehiagok bilatzen dituzte udalerriekin loturak eta harremanak.

- **Asturiasen** ez da EA 21 programa garatzen, baina 2001-04 bitarteko ikasturteetan *Ecomet 21* europar proiektua garatu zen. Europako unibertsitate eta erakunde batzuek lan talde bat osatu zuten Oviedoko *Centro de Profesorado y Recursos*-en (Irakasle eta Baliabide Zentroa), berau koordinatzaile delarik. Proiektu horrek *Guía europea para la elaboración de agendas escolares ambientales* (Ingurumen EAK egiteko europargida) atera zuen 2004an. Gida hori irakasleei, aholkulariei, ikuskariei eta IHko enpresetako kideei zuzenduta dago, eta hiru atal ditu: kontzeptuak eta hiztegia, ekoauditorea bat egiteko pausoak eta esperientzia eredugarri batzuk.

Estatu mailan, gero eta ikastetxe gehiago ari dira batzen programa honetara, eta Euskal Herriko egoera, bereziki Euskal Autonomia Erkidegoan Ingurugela-Ceidak gidatzen duena, hurrengo zenbakian ikusiko duzue. ●



EXPERIMENTATIONS D'AGENDA 21
D'ÉTABLISSEMENTS SCOLAIRES

sous le Haut Patronage
du Ministère de l'Éducation Nationale,
de l'Enseignement Supérieur et de la Recherche

Etorkizunak ez du itxura onik! Energia iturriei eta kontsumoari begira jarri dira Barakaldoko El Regatoko ikasleak

Bigarren aldiz joan da Teknoskopia asmatzaile gazteentzako ideia-lehiaketako saria Barakaldoko El Regato ikastetxera. Energiaren gaia izan da ardatz 3. edizioan eta parte-hartzaileek 2050. urtean zeudela eta ohiko energia iturriak agortzear zeudela irudikatu behar zuten. Horren aurrean, soluzioak ematea zen euren lana. El Regatoko gazteek euren herria, Barakaldo, nola egongo den irudikatu dute *Metropoli 2050* izena eman dioten lanean.

Elhuyar Fundazioak, Saretekek, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Zientziaren Kutxaguneak elkarlanean antolatzen dute lehiaketa Batxilergoko eta Lanbide Heziketako gazteentzat. Helburua ikasleak motibatzea da, eta horretarako, ikertzaile-asmatzaile bihurtzen ditu lehiaketak. Oraingoan lau lan aurkeztu dira eta denak bikainak izan direla azpimarratu dute antolatzaileek.

Irabazleen lanari dagokionez, eman dioten ikuspegi zabala eta sakona aipatu dute. Janire Villa, Alesander Garcia, Asier Esteban eta Iñigo Gomez gazteak energiaren arloan lanean ari diren herriko agintarien paperean jarri dira, eta 2050. urtean Barakaldo nola egongo den irudikatu dute. Gaur egun dituzten energia baliabideak aztertu dituzte, eta agortzear egongo direla irudi-



Garikoitz Alvarez irakaslea eta ikasle irabazleak.

katuz, herria hornitzeko sistema berri bat aurkeztu dute, ohiko energia iturriak ordezkatuko dituzten beste alternatiba batzuk proposatuz.

Ikertzaile lanetan

Metropoli 2050 lanak hiru zati nagusi ditu. Lehendabizikoan gaur egungo egoera aztertu dute, bigarrenagoan 2050. urterako espero den egoera, eta hirugarrenean konponbideak proposatzen dituzte.

Gaur egungo egoerari dagokionez, hainbat datu bildu dituzte. Esate baterako, Barakaldon eta inguruan 355.000 biztanle bizi dira eta bakoitzak 15 kWh erabiltzen ditu egunean. Zertan? Non? Zerbitzuetan, garraioan, etxean (argia, berogailua eta aire girotua, ur beroa eta janaria prestatzen) eta industrian. Energia horiek sortzeko sistemek 25 milioi tona CO2 isuri zituzten eguratsera iazko urtean, SO2 eta NOx aparte utzita. Ura kutsatuta ikusi dute, lurra ere bai,

basoak galtzen, argi-kutsadura ere badago, eta baliabide naturalak agortzen ari dira. Aldaketa klimatikoa ere gero eta nabarmenagoa da. Hori guztia ikusita, ondorio batera iritsi dira: neurritz kanpoko kontsumoak etorkizuna arriskuan jartzen du eta geure inguruko energia iturriak ez ditugu behar bezala erabiltzen.

Etorkizunak ez du itxura onik!

Halaxe pentsatzen dute lau gazteek. 2050. urtean Barakaldo eta Bilboko metropolian 1,1 milioi pertsona biziko direla kalkulatu dute. Oraingo martxan jarraituz, biztanle bakoitzak 25 kWh energia kontsumituko du egunean. Tenperaturak 2,75°C inguruko igotzea izango du urte horretarako. Ondorioz, klima lehorragoa izango da eta itsasoaren altuerak metro erdiko igotzea izango du. Honenbestez, gaur egun ezagunak zaizkigun auzo nahikotxo desagertu egingo dira urak irentsita.

Kostaldeak jasango duen aldaketa ere aipagarria izango da. Horrekin batera, hainbat baliabide natural desagertu egingo dira: zenbait animalia espezie, zuhaitz espezie batzuk... Urgezaren eskasia nabaritzen ere hasiko gara.

Konponbiderako proposamenak

Janire, Alesander, Asier eta Iñigo gazteek 2050. urtean metropoliko agintariak izango direla irudikatu dute. Horrela, energia aurrezteko eta modu jasangarrian sortzeko erabakiak hartuko lituzkete sei esparrutan: urbanismo eta arkitekturan, garraioan, industria eta zerbitzuetan, hezkuntzan, legerian eta energiaren sortzean.

Gauzak horrela, **urbanismoa eta arkitektura** bioklimatikoak izango dira. Eraikuntza guztiak domotikoak izango dira eta barne tenperatura, hezetasuna, argia... kontrolaturik egongo dira. Etxetresna elektrikoak kontsumo baxukoak izango dira, luminariak led erakoak, eta bonbillak kontsumo baxukoak.

Garraioari dagokionez, garraio sare publikoa guztiz garatua egongo da, eta elektrizitate hornidura sarearekin bat egingo du. Industria eta zerbitzuetako garraioak soilik onartuko dira metropolia barruan. Auto pribatua gero eta arraroagoa izanen da. Metropolien arteko geltokietan autoak alokatzeko aukera egongo da.

Hidrogeno pilaren oinarritzko ideia garatuz lortutiko motorrek ura besterik ez dute sortzen. Ur hori modu egokian baturik, parkeak ureztatzeko, kaleak garbitzeko edo bestelako prozesu bazuetarako erabiliko da.

Hidrogeno motorra erabiltzen ez duten garraioek etxeetatik baturiko oliotik lorturiko biodiesela erabiliko dute.

Industria eta zerbitzuen alorrean, edozein enpresak ingurumen legeria zehatz-mehatz bete beharko du eta ho-

ri bermatzen duen kontu ikuskaritza urtero pasatuko du. Produktu guztiak etiketa berdea eraman behar dute. Etiketan osagai guztien berri emango da eta ingurumeneko kaltegarriak direnak agertuko dira, bai eta horiek nola tratatu behar diren behin produktua erretiratu nahi denean ere. Metropolia- ren gunean ez da industriarik egongo, zerbitzuak soilik. Erosketetarako edozein zerbitzuek etxez etxeko banaketa izango du, eta erosleak aukeraturikoa etxera eroango diote. Garraio baimenduak izango dira banaketa egingo dutenak.

Hezkuntzari dagokionez, ingurumen hezkuntza nahitaezko irakasgaia izango da eskolatze osoan zehar. Kontsumitzaileei zuzendutako kanpainak eguneroko kontua izango dira. Kanpaina bakoitza gaitzen inguruan izango da eta urte garaia araberakoa; hala nola, Gabon garaia eta sorturiko hondakinen hazkuntza, uda eta aire girotuaren erabilera, negua eta berogailuen erabilera, oporraldiak eta ingurumenaren garrantzia, garraio publikoaren erabileraren sustapena...

Telebista saiok, egunkariak, aldizkariak eta irrati saiok energia aurreztearen gaia eta baliabideen zentzuzko erabilera zeharkako gaitzat izango dute; argazkiak, elkarrizketak, komiki bandak, lehiaketak eta abar.

Alor guztietan **legeak** finkatuta egongo dira eta legeak eguneratzeko eta betetzen direla ziurtatzeko lantaldea sortuko da.

Energia sortzeko modu berriak bultzatuko dira: eguzki energia, haize energia, esperimentazio-fusio zentrala, hondakinen balorizazio planta eta abar. Eta noski, erabilera orain baino askoz gehiago neurtuko da.

Horiek proposamen batzuk baino ez dira. Euren lanean gehiago aipatzen dituzte, eta nahi duenak, ikusgai ditu honako helbide honetan: www.zientzia.net/teknoskopioa

Talde lana eta motibazioa

Ikerketa lan sakona egin dute gazte horiek horrelako lana egiteko, eta hori-

xe da lehiaketaren helburuetako bat, gainera. Janine Villak dioen moduan, "Interneten informazio ugari aurkitu dugu. Hori izan da gure informazio iturrietako bat. Horrez gain, aldizkariak eta herriko hainbat informazio ere erabili ditugu". Gaia interesgarria iruditu zaiela diote, eta horrek asko motibatu ditu. Eta noski, Garikoitz Alvarez irakaslea ere hor izan dute, akuilu lana egiten. "Taz eskola orduetan egin genuen lehiaketarako lana, baina aurten ez. Gelara joan eta lehiaketaren berri eman nuenean, norke parte hartu nahi zuen galdetu nuen, eta lau hauek animatu ziren". Beraz, eskolako orduetarako kanpo aritu dira; han eta hemen informazioa bilatu, bildu, eztabaidatu, erabaki, zehaztu, antolatu, idatzi, aurkeztu... prestatu...

Lehiaketako sariak motibazioa piztu die, gaiak interesa eta jakin-mina sortu dizkie, talde lanak emaitza interesgarria ekarri die, eta esperientziak ikasteko balio izan die. Besteak beste, ideia argi batzuk badituzte orain, eta hori da zabaldu nahi dutena: ingurumenarekin ezin dela brometan ibili, eta neurriak hartzen hasi behar dela seriooki. ●

Aurkeztutako lanak

Metropoli 2050

Egileak: Janire Villa, Alesander García, Asier Esteban eta Iñigo Gomez. Barakaldoko El Regato ikastetxe-koak.

Energia autohorniketarako bidean

Egileak: Irati Mestraitua, Lorea Sautua, Etor Uribe eta Janire Castelo. Markinako Lea-Artibai Ikastetxe-koak.

El reto de la energía en Barañain

Egileak: Amaia de la Era, Irene García, María Garde eta María Munnáriz. Barañaingo BHIkoak.

2050: Escasez y solución

Egileak: Marina Bárcena, Daniel Echeverri, Nora Ubani eta Andrea Valentín. Barañaingo BHIkoak.

Zergatik erabili behar dugu hizkera ez-sexista? Horrekin emakume eta gizonen arteko parekidetasuna lortuko al dugu



Emakume eta gizonak desberdinak gara, baina hori, berez, ez da arazoa, pertsona guztiak baikara desberdinak. Ez daude bi elur-maluta berdin ezta bi emakume berdin, bi gizon, gizon bat eta emakume bat, emakume bat eta gizon bat... Arazoa hasten da emakume izategatik ezaugarri jakin batzuk izan BEHAR dituzunean, edo jokaera jakin bat eduki, eta abar.

Biologikoki XX eta XY kromosomak ditugu eta horren arabera gizon edo emakume izendapena jasotzen dugu mundura heltzen garen mementoan. Gero, arropa arrosa edo urdina jartzen digute, balleta edo futbola egin eta gorputzeko edo aurpegiko ilea kendu. Nahiz eta bi generoetan ezaugarri finkoak dauden eta 'muga' horien aurka ere lanean ari garen, bereizketa horri hurbilagotik begiratzen badiogu, konturatuko gara ezaugarri 'positiboak' gizezkoiei eman zaizkiela eta 'negatiboak' emakumei (edo behintzat horrela ikusten dugu gaur egun). Azken hiru mendeetako pentsalarien arabera, ezaugarri maskulinoak independentzia, konpetitibitatea, arrazoia, hierarkia, kultura, eremu publikoa eta gatazka dira eta ezaugarri femeninoak de-



Amaia ALVAREZ URIBEA

EUSKAL FILOLOGOA ETA AEK-ko IRAKASLEA

pendentzia, kooperazioa, emozioa, hierarkiarik eza, natura, eremu pribatua eta elkar ulertzea.

Arazoa, lehen esan bezala, ezaugarri horien balorazioan datza, denok daukagun ikuspuntuan: ezaugarri maskulinoak dira baloratzen direnak ilustrazio garaitik globalizazioaren arora arte, eta ezaugarri femeninoak bazterten dira, 'ahul'izat hartzen dira, eremu pribaturako balio dutenak inon balio izatekotan. Beraz, alde batetik *emakumea* = *negatiboa* berdinketa egiten da eta bigarren mailakotzat jotzen da

'femenino' etiketa duena.

Beste alde batetik, horren ondorioz gizona da lehen mailakoa, eredia eta ardatza; zentroa. Subjektuaren rola hartzen du (emakumea objektuarena hartzen du horrenbestez), eta pertsonaren sinonimo bihurtu. 'Pertsona' bat irudikatzen dugunean, semaforoan dagoen pampina kasu, gizona etortzen zaigu burura. Emakumea *pertsona* + *emakumea* izatera pasatzen da horrela, *pertsona azalpenik gabe* gizona baita, eta emakumea markatua da, zehatza, ez-neutroa, ez-unibertsala. Joera horren azken muturra emakumeen desagerpena da, ez aipatzea, ez kontuan hartzea eta gizonaren ereduarekin multzoa ordezkatzeko, hau da, *pertsona = gizona* berdinketa egitea.

Emakume eta gizonen parekidetasuna lortzeko bidean esparru eta gai guztiak jorratu behar dira, lan mundua, komunikabideak, kultura, aisia, hezikuntza... eta hizkuntza.

Hizkuntza, hizkera, jendea... non dago arazoa?

Gai honi buruz hitz egiten denean beti aipatzen da erabilera dela sexista, hor dagoela arazoa. Ondo 'erabiltzen'

badugu hizkuntza, hizkera ez-sexistan badihardugu, “akabo kontua!” pentsatzen du jende askok. Seguru al zaudete? *Jendartea, pertsona, neba-arrebak, legelaria* eta *zuzendari jaun/andrea* hitzak erabiltzen baditugu lortuko al dugu parekidetasuna? Ez da posible testua soilik aldatuta eta testuinguruari erreparatu gabe diskriminazio sexuala desagertzea, baina hori egiteak laguntzen du, jakina.

Egoera edo erantzun ideala dena lantzea izango litzateke, gorago esan bezala. Esparru guztiak eta alderdi guztiak izan behar ditugu kontuan eta hor dago benetan zailtasuna. Errazena *jendartea* eta *zuzendari jaun/andrea* berbak erabiltzea da. Askoz zailagoa da denok barneratu dugun pentsamoldea auzitan jartzea eta aldatzen saiatzea.

Euskara modu ez-sexistan erabilia diskriminazio sexualaren kontrako bidean sartzen gara eta bertan pauso bat ematen dugu. Baina haruntzago egin beharko genuke, ez genuke hor gelditu beharko gure bidea, ez ginatke horrekin konforme egon beharko. Erabile-
rak egiten du hizkuntza eta hizkuntza-
tik elikatzen da erabilera, eta hizkuntza
munduari begiratzeko modu bat bada,
errealitatearen isla bada, mundua eta
errealitatea aldatzen has gaitezke hiz-
kuntzatik bertatik eta hortara goaz.

Euskarak genero gramatikalik ez badu, zertan da sexista?

Hizkuntzen artean desberdintasunak daude duten zama sexistari begiratzen badiogu. Alvaro Garcia Meseguerrek (hizkera sexistaren gaian espezializatutako espainiar hizkuntzalariak) dioenez, euskarak oso zama sexista txikia dauka. Erdaren artean gaztelaniaren zama sexista % 80koa da, frantsesarena % 40koa, ingelesarena % 15ekoa eta euskararena % 5ekoa. Zorionekoak gara, baina horrek ez du esan nahi arlo hori landu behar ez dugunik.

Hizkuntzan bi sexismo mota agertzen zaizkigu: sexismo linguistikoa eta sexismo soziala. Lehenengoaren barruan maila sintaktikoa eta maila lexikoa dauzkagu. Sexismo linguistikoa

forma da eta soziala fondoa, beraz, aurreko paragrafoan aipatu ditugun portzentaia eta desorekak sexismo linguistikoa agertzen zaizkigu. Horrek esan nahi du sexismo soziala berdina dela hizkuntza guztietan, fondo bera daukagu kultura desberdinetan, pentsamolde edo ikuspegi patriarkala barneratuta dago guztion garunetan, izan beltz, eder, aberats, altu, gazte, ekialdeko edo bestelakoa.

Sexismo sozialean agertzen zaizkigu emakumearen presentzia urria edo gutxietsia, emakumeen ekintzen pasibitatea eta eskusibitatea, emakumeen kontrako bortizkeria, ikuspegi dualaren morrontza (zuri/beltz, eder/zatar, aberats/pobre...) eta emakumeen ikusezintasuna, besteak beste. Hori da aldatzen zailena, gure bizitzan zehar ikasi ditugun sinbolo eta irudikapenak okertzat jo eta zerotik balio eta jarrera berriak sortu behar ditugulako, eta hori une oro egin beharreko lana da.

Sexismo linguistikoa bi maila daukela esan dugu: sintaktikoa eta lexikoa. Maila sintaktikoa daudenak aldatzeko, maila lexikoa daudenak aldatzea baino ahalegin handiagoa eskatzen du. Maila sintaktikoa estereotipoak, androzentrismoa eta jauzi semantikoa (hitzaren esanahian salto bat dagoenean, neutroa den berba bat maskulino ulertzen dugunean) ditugulako. Maila lexikoa goian aipatu ditugunez gain (jendartea, pertsona, neba-arrebak, legelaria eta zuzendari jaun/andrea), adeitasunezko formak, izen-abizenak, irainak, esaera zaharrak eta lanbideak ditugu beste batzuen artean.

Zenbat buru, hainbat aburu

Azken horiek dira orain arte aipatutakoen artean ordezkatzeko errazena, eta hala eta guztiz ere, polemika handiak egon izan dira gai horri buruz hitz egin izan den bakoitzean, bai forma zaharren desegokitasuna dela eta bai proposamen berrien egokitasunari begira. Iritzi asko daude, eta askotan kontrajarririk.

1990eko hamarkadan eztabaida handia egon zen euskal prentsan *giza*

Hizkuntzan bi sexismo mota daude: linguistikoa eta soziala.

Linguistikoa forma da eta soziala fondoa. Euskarak, genero gramatikalik ez duenez, sexismo linguistikoa beste batzuek baino gutxiago du. Baina soziala besteek adina.



eta *gizaki* hitzen egokitasunari buruz eta *anaia* berbaren erabileraren gainean. Anuntzi Arana eta Xabier Kintanaren artean eztabaida bizia egon zen Euskaldunon Egunkaria agerkariaren orrietan 1992ko urtean. Dena hasi zen Jose Martin Apalategiren liburuaren izenburua zela eta: *Pertsona eta sozietatea*.

Oso sonatua izan da, era berean, gaur arte iraun duen genero gramatikaren erabilera eta maskulino orokortzailearen ordezkari posibleen gaineko eztabaida (“*El hombre descubrió el fuego*” edo “*Los alumnos* deberan salir al patio”) espainiar prentsako iritzi artikuluetan.

Denok ezagutu dugu las y los formularen erabilera duen zama. Baina nola esan daiteke hori bi generoak kontuan hartuta? @ aukera ekonomikoagoa da, baina irakurtzeko zailtasunak agertzen dira. Maskulino orokortzailea erabili beharrean femenino orokortzailea erabiltzea proposatu izan da, baina bide hori epe laburrerako baino ez da, epe luzerako erabiliz gero harri berean egingo baikenuke topo. Proposamen xebleena les artikulu neutro berriarena izan da. Proposatu zuenak onartzen zuen, edonola ere, ez zela bideragarria atentzia horra bideratuko zelako testuari kasurik egin gabe.

Zergatik uste duzue jende gehienak Euskaltzaindiaren arauei hasieratik eta zalantzarik gabe baietz



esaten diela eta Emakunderen gomendioei muzin egin?

Gomendioetatik planetara

Azken hogeit urtetan, euskararen kasuan, eta hogeita hamar urte gaztelaniarenean, hizkera ez-sexista erabiltzeko gomendioak argitaratu izan dira leku askotan. Ezarpenari begira bi esparru izan dira bereziki zainduak: komunikabideak eta hezkuntza. Emaitzei begira, desoreka handia dago batzuen eta beste erabileraren artean, baina zenbait arlotan aldaketak eta aurrerapausoak egon dira.

Gomendioek akatsak eta mugak dituztela ikusi dute eta beste urrats bat eman nahi izan dute. Gomendioek batzuek ere azpimarratzea merezi duten bi muga dituzte: bata da ez dutela autoritate arauemailerik, beraz, ez dira aintzat hartzen, ez dira garrantzitsuak jendearentzat eta horren ondorioz oso zaila da horiek barneratzea eta sistematikoki erabiltzea. Edozein arau emateak daukan arazoa dute, bestalde, zurruntasuna eta zentsura kutsua dute, sorkuntzari ateak ixten dizkiona.

Beste berraztertzeko hitz egin dugu: normalizazio linguistiko ez-sexistaren prozesua era globalean ulertzeko zailtasuna, hau da, testuaz gain testuingurua aldatzeko premia. Hori adierazi nahi genuen *jendarte* hitza erabiltzearekin nahikoa ez dela genioan (nahiz eta argi utzi nahi dugun oso pauso esanguratsu eta garrantzitsua dela hori).

Beraz, Jesus María García Saenz hizkuntzalariak dioen bezala, *hizkuntzaren erabilera ez-sexistatik politikoki*

zuzena den hizkuntzara pasatu behar gara eta sexismoaren aferarekin batera, arrazismoa, klasismoa eta homofobia bezalako tratamendu diskriminatzaileak ere deuseztu behar ditugu gure hizkuntzatik.

Nola egin dezakegu hori guztia ikasgelan?

Aipatutako horrek guztiak pisu handia dauka heziketan: identitatearen eraketa, desberdintasunaren pertzepzioa, botere harremanak eta prestigioa kontu horien eraginpean daudelako. Kontuan hartu beharko ditugu eskolako jardunean parte hartzen duten aldagai guztiak: ikasmateriala, ikasleak, irakaslea eta gela.

Ikasmaterialari dagokionez bi kontu: hizkuntza eskoletan (Euskara, Gaztelania, Frantsesa edo Ingelesa eskoletan) modu berezitan emateko aukera dago (Euskara eskola ematean Emakunderen gomendioak klaseratu daitezke eta arazoaren gainean gogoeta egin). Baina beste saioetan eta beste ikasgaietan ere kontuan hartzen ez badugu, gertaera anekdotikoan geratuko da, beraz, eguneroko jardunean txertatu beharrekoa da. Horregatik, ikasmaterial guztia gainbegiratu beharko dugu klaseratu aurretik, eta konprobatu hizkera, estereotipoen agerpena, irudi eta sinboloak, lanbideak, adjektiboak, harreman motak, espazioen banaketa...

Ikasleek jarrera aktiboa edukitzea, euren ikuspegi kritikoa piztea oso garrantzitsua da. Horretarako, lexikoarekin has gaitezke lanean: esaera zaharrak, kantu herrikoiak eta sexuari buruzko espresioak aztertu eta horien atzean dagoen munduari begiratzeko modua atera. Bertan agertzen diren gizon eta emakume irudiei erreparatu eta nolakoak diren esan. Batzuek eta besteek egiten dituzten lanak, okupatzen dituzten espazioak, batzuentzat eta besteentzat erabiltzen den hitz kopurua, betetzen dituzten rola, hitzek dituzten konnotazioak, subjektu eta objektu harremanak...

Irakasleak ikasketa autonomia

(ez-dependientea) eta kooperatiboa (ez-konpetitiboa) bultzatu behar ditu. Horrekin batera denon parte-hartzea eta talde lana sustatu behar ditu. Modu horretan, gelako pertsona guztion artean eskola aberastuko dugu elkar eza gutuz, eta horren ondorioz ikasleen artean banatuko dugu boterea eta aniztasunaren aldeko jarrera orokortzen saiatuko gara.

Ezin dugu aipatu gabe utzi 'kurrikulu ezkutua', hori oso ondo zaindu beharreko kontua delako. Irakaslearen jarrerak, keinuek, iruzkin txikiak ere, diskurtso luze, argi eta ilustratuena piktura bidali dezakeelako segundu batean. Ez ditugu erabiltzen konturatu gabe *maritxukeria* eta *putada* bezalako berbak euskaraz, ala? Ez al duzue sekula *marimutil*, *neskazabare* edo *amahir* hitzei buruzko gogoetarik egin?

Azkenik gela dugu. Espazioa nola banatzen dugun, ikasleak non eta non ondoan esertzen diren, nola taldekatzen diren, ikasgelak zein dekorazio duen (hormirudi, mural, argazki, kartel edo egutegi), aulkiak eta mahaiak nola dauden kokatuta, irakasleak zein espazio okupatzen duen... Gauza horiek guztiak era kontzientean begiratu behar dira.

Ondorioak

Kontzienteki pentsatu, hitz egin eta ulertu behar ditugu diskurtsoak, eta interpretazio bakarrari ihes egin. Hitz baztertzailak deuseztatu eta berriak bilatu edo, zergatik ez, sortu (Kike Amonarrirek eta Asisko Urmenetak gazte hizkerarekin egin duten bezala, dauden esakerak herriz herri bildu eta ez daudenak asmatu).

Ezin dugu gure burua gustuko ez dituen berbak erabiltzera behartu, baina behin puntu honetan ezin gara konformatu daukagun hizkera diskriminatzailearekin ere. Hala ere, zergatik uste duzue jende gehienak Euskaltzaindiaren arauei hasieratik eta zalantzarik gabe baietz esaten diela eta berehala erabiltzen hasi eta Emakunderen gomendioei, oster, oztopo ugari ipini eta gero muzin egin? ●

Bide eginean jarraitzen dugu zuen
ekarpenekin eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa duen edonoren
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.
Jar ezazu zure aletxoa euskal
hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.

martxoa

berriak

Euskal Curriculumuma bidea egiten

Ikastetxeetako ekarpenak jaso ondoren, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak, Kristau Eskolak eta Sortzen-Ikasbatuazek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eman diote Euskal curriculumaren txostena.

218 ikastetxetan landu da euskal curriculumaren proposamena; Euskal Autonomia Erkidegoko 171 zentrotan, Nafarroako 22tan eta Iparraldeko 25etan. Horietatik guztietatik 109 kristau eskolak dira, 84 ikastolak eta 25 eskola publikoak. Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumuma aztertzen, baloratzten eta ekarpenak egiten aritu dira guztietan, eta horiek jasota, amaitutzat eman dute ebaluazio prozesua. Gustura agertu dira denak prozesuak eraman duen bidearekin.

Tontxu Campos Hezkuntza sailburuaren esanetan “lan honek Euskal Autonomia Erkidegoko curriculum ofiziala egiteko balioko du, gainerako ekarpenekin batera”. Ikasturte amaierarako bukatu nahi dute curriculum ofiziala, edo behintzat gutxieneko oinarritzko



Aitor Bilbao (Kristau Eskola), Tontxu Campos (Hezkuntza sailburua), Koldo Tellitu (Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa) eta Juanjar Aretxabaleta (Sortzen-Ikasbatuaz) euskal curriculumaren ebaluazio txostena entregatzeko ekitaldian.

curriculum komuna zehaztu nahi dute, gero ikastetxeek eta irakasleek zehaztapenak egiteko lagungarri izango dena. Edonola ere, curriculuma martxan noiz jarriko den zehaztu gabe gelditu da, “horren aurretik irakasleak eta materialak prestatu behar baitira” sailburuak azaldu duenez.

Curriculum ofizialaren helburua ikasleei bizitzan beharrezko izango dituzten kompetentziak eta gaitasunak

ematea izango dela azpimarratu zuen, eta ez hainbeste edukiak.

Euskal curriculumak ere ikuspegi berri hori du. Funtzio nagusia ikasleak bizitzarako presta daitezten lortzea da, eta horretarako ikasle guztiek hezkuntza konpetentzia orokorrak integratu behar dituzte. Ikasgaiak horien arabera antolatuko dira. Eta helburuetako bat euskal kulturaren transmisioa bermatzea izango da.

Herri ekimenak egingo dira eskolak euskaldundu dezan eskatzeko

“Bada garaia: bai eskolak euskalduntzeari!!!” leloa aldarrikatuz ari da aurrera eramaten kanpaina berria Eskolak Euskaldundu Herri Ekimena. Iaz 107.768 sinadura bildu zituen euskaldunduko duen eskola eskatuz. Urtebete geroago, egoerak berdin jarraitzen du: Euskal Herriko hiru ikasletik bi ez dira euskalduntzen.

Hainbeste herritarren eskaerari jarraipena emateko, ekimen berriak antolatu dira herriz herri. Otsailean zehar

egin direnez gain, martxoaren 10eko ekitaldi nagusia bitartean, honako hauek egingo dira:

Martxoak 1, Gasteizen auto karabana 18:00etan Mendizabaletik.

Martxoak 2, Bilbon 17:00etan Plaza berrian haurrentzat jaia eta 18:00etan kalejira udaletxeraino.

Iruñean 18:30ean manifestazioa autobus geltokitik.

Martxoak 3

Altsasan manifestazioa.

Gernikan haurrentzat jaia.

Hernanin haurrentzat jaia.

Ordizian jaialdia.

Zarautzen jaialdia.

Martxoak 4, Oretetan 11:00etan haurrentzat jaia eta 12:30ean kalejira Zumardian.

Martxoak 9, Gasteizen manifestazioa 19:00etan Bilbo plazatik.

Martxoak 10, ekitaldi nagusia Donostiako Antiguako pilotalekuan 11:30etik aurrera.

Eskualdez eskualde aurkezteko tenorea

2006ko udazkenean, Nazio Garapen Biltzarrak Euskal Herriko Oinarrizko Hezkuntza Akordioa aurkeztu zuen, sektore askotariko sustatzaileen babesaz. Orduan, eztabaida soziala bultzatzeko asmoa adierazi zen eta hori dela eta, orain hainbat ekimen egiten ari dira Hezkuntza Akordioa herriratzeko eta ekarpenak jasotzeko.

Eztabaida sustatu nahi da, egungo zatiketa sozialaren arriskuak gainditu eta Euskal Herriak bizirauteko eta gartzeko behar duen hezkuntza sistemaren inguruan hausnartu.

Eztabaida herriratu, atxikimenduak lortu eta indarrak batu

Eskualdez eskualde antolatzen ari dira aurkezpen batzarrak, akordioaren mamia ezagutarazi eta ekarpenak jasotzeko asmoz. Aurkezpena eskatzen duten heziguneetara ere joango dira.

Era berean, eragile desberdinekin harreman iraunkorra mantentzea du helburu.

Jada, Iruñean otsailak 15ean aurkeztu zen eta 21ean, oster, Hazparnen.



Eskualdez eskualdeko aurkezpenak eta webgunea aurkeztu dituzte Hezkuntza Akordioaren bultzatzaileek.

Hurrengo aurkezpenak non?

- Martxoaren 6an, **Zarautzen**, 19:00etan *Laboraleko aretoan*.
- Martxoaren 14an, **Durangon**, 19:00etan *Pinondo kultur etxean*.
- Martxoaren 15ean, **Gasteizen**, 18:00etan *Aldabe gizarte etxean*.
- Martxoaren 29an, **Errenteria-Oreretan**, 18:00etan *Xenpelar etxean*.

Webgunea martxan

Abian da www.hezkuntzaakordioa.net.

dióa.net. Urrats berriak emateko bitarteko gisa aurkeztu zen webgunea. Bertan, atal ugari daude. Alde batetik, akordioaren edukia ezagutzeko aukera dago. Bestetik, ekarpenak helarazteko tartera, norberak bere iritzia, kezka eta usteak idazteko gunea. Eta norbanakoen atxikimendua egiteko aukera ere eskaintzen du.

Jakin-mina izanez gero, webgunea jo eta han aurkituko duzu behar duzun informazioa.

EAEko unibertsitatez kanpoko irakaskuntza publikoko emaitzak

Otsailaren 14an izan dira EAEko hezkuntza publikoko ordezkari sindikalak aukeratzeko hauteskundeak. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako irakaskuntza ez unibertsitarioan, LABek lortu ditu ordezkari gehien 49 ordezkariarekin. 2003an baino ordezkari gutxiago aukeratu badira ere, STEE-EILASEk lortu du delegatu gehiago ateratzea (ikus taula). Unibertsitatean, aldiz, CCOO izan da nagusi 21 ordezkariarekin. EILASEk 20, LABek 16, ELAk 14, UGTk 13 eta CSIFek 2 ordezkari lortu dituzte.

	LAB		ELA		CCOO		EILAS		UGT		Besteak		Guztira	
	2003	2007	2003	2007	2003	2007	2003	2007	2003	2007	2003	2007	2003	2007
Irakasle funtzionarioak	18	20	18	18	32	31	20	25	9	5	0	0	97	99
Irakasle hezitzaileak	18	16	16	13	10	7	12	9	2	1	2	1	60	47
Zerbitzuetako langileak	20	13	21	14	8	5	0	0	5	3	0	0	54	35
Erlijio arloko irakasleak	0	0	4	3	4	3	0	0	1	1	0	0	9	7
GUZTIRA	56	49	59	48	54	46	32	34	17	10	2	1	220	188

Gipuzkoako Haur Kantari Jaialdia ospatuko da martxoan

Nafarroako irudiari jarraituz, Haur kantari jaialdia jaio da Gipuzkoan, Euskal Kantuzaleen elkartearen eskutik. Elkarte honek, urte askotako ibilbidea egin du, eta batez ere euskal kantua eta euskaldunon artean beti izan dugun elkartzeko eta kantuan aritzeko ohitura gal ez dadin dihardu lanean. Elkarreak, kantuek gure herriaz, kulturaz, ohituraz eta horietaz haratago doazen gaiez irakasteko asko dutela sinetsita, bere balioa transmititzeko premiari eutsi eta kantua lantzeko materiala, ikastaroak eta abar antolatzen ditu.

Jaialdi honen helburu nagusia ikasgela barruan egiten den lanari jende aurreko aukera ematea da. Haurrak kantarekin gozatzea eta euskal kantutegiko errepertorio aberatsa modu ludikoa ezagutzeko lortu nahi da ekimen honenkin, eta horrez gain, Kantuzaleen elkarreak euskal kantua heziketarako

tresna oparoa dela erakutsi nahi du.

Jaialdian parte hartzeko, 15 urte izan behar dira gehienez, eta martxoak 9a aurretik eman behar da izena. Hiru sail egongo dira, banakako saila, banakako saila eta hirutik gorako abeslarien saila. Nahi izanez gero instrumentua eramanez daiteke, eta nahi bada, *a capella* ere abes daiteke. Bestalde, abestiari dagokionez, ezaguna edo norberak sortua izan daiteke, zaharra nahiz be-

rria. Eta noski, euskaraz abestu behar da.

Jaialdia egitea izan da hautua, eta ez txapelketa. Izan ere, elkartearen uste-tan, txapelketak eragin dezakeen tentsioa eta urduritasuna gutxitu dezakeelako, haurrak gustura eta eroso abes dezaten. Beraz guztiek irabaziko dute haur kantari jaialdian.

Hala ere, Euskal Herriko Haur kantari txapelketa ospatuko denez, Gipuzkoako haurrak bertan izan daitezten, aditu talde bat jarriko du Euskal Kantuzaleen elkarreak bi saioetan, euren ustez nabarmendu diren parte-hartzaileak bertara joateko proposa ditzaten.

Gipuzkoako haur kantari jaialdia bi saiotan

1. saioa:

Azkoitian, martxoaren 17an, arratsaldeko 17:00etan

2. saioa:

Tolosan, martxoaren 31n, arratsaldeko 17:30ean

Izena emateko (martxoak 9 baino lehen) eta informazio gehiagorako:

943 593 302

posta@kantuzale.net

Ikastaroak

* **Lagunarteko hizkerarekin jolasean. DBH-ko gazteekin.** **Noiz:** martxoak 1, 8, 15, 22, 17:30-20:00. **Non:** EIBZ (Mokarte parkea z/g, Uharte) **Informazio gehiagorako:** <http://www.pnte.cfnavarra.es/eibz/ikastaroak/index.htm>

* **Psikomotritatea eta jolasa 0-3 zikloan** (GARATU 06-07) **Noiz:** martxoak 5 eta apirilak 18. **Non:** Bilbon. **Maileak:** Elena Herran. **Informazio gehiagorako:** http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/es/contenidos/informacion/die11/es_2070/cursos_garatu_2006_2007.html

* **Heziketa premia bereziak.** **Noiz:** martxoak 10, 17, 24, 10:00-14:00 / 15:30-19:30 **Non:** Donostiako Egia auzoan. **Maileak:** hainbat erakundetako adituak eta kideak, besteak beste, Gautena, Aspace, Aransgui, Once... erakundetakoak. **Informazio gehiagorako:** www.aisia.net edo 943 270 033.

* **Teknika parte-hartzaileak.** **Noiz:** martxoak 10, 19, 10:00-14:00 / 15:30-19:30. **Non:** Donostiako Egia auzoan. **Informazio gehiagorako:** www.aisia.net edo 943 270 033.

* **Pedagogia sistemikoa: nerabeentzako euskarria. Hezkuntza konstelazioak.** **Noiz:** martxoak 7, 8, 17:00-21:00. **Maileak:** Angelica Olvera. **Informazio gehiagorako:** 637 893 079.

* **Haur eta nerabeentzako hezkuntza eta famili konstelazioen tailerra.** **Noiz:** martxoak 9, 10:00-20:00. **Maileak:** Angelica Olvera. **Informazio gehiagorako:** 637 893 079.

* **Bergarako psikomotritate eskolako sentsibilizazio ikastaroak.**

- **Bilbo.** **Noiz:** maiatzak 4, 5 eta 6.

- **Trintxerpe-Pasaia.** **Noiz:** maiatzak 18, 19 eta 20. **Non:** Virgen del Carmen ikastetxean.

- **Gasteiz.** **Noiz:** irailak 28, 29 eta 30. **Non:** Calasanz ikastetxean, Eskolapioetan.

Ordutegia: ostirala 18:00-22:00 (Bilbon 18:30), larunbata 9:00-19:30, igandea 9:00-15:00 (Bilbon 15:30).

Informazio gehiagorako: Bergarako Psikomotritate Eskola, 943 769 033 edo info@bergara.uned.es

Experimentaldia 2007. Zientziaren II. Azokan parte hartzeko aukera zabalik dago

Donostiako Zientziaren kutxaGuneak antolaturik **Experimentaldia 2007. Zientziaren II. Azoka** ospatuko da **maiatzaren 4an eta 5ean**. Experimentaldia 2007ren nahia da ikastetxeen topagunea izatea, zientziarekin lotura duten esperientziak, esperimentuak, ikerketa-proiektuak eta bestelako jarduerak aurkezteko. Ikasleen partaidetzaz gain, beste zenbait jarduera ere eskainiko du Zientziaren kutxaGuneak, baita didaktika- eta zientzia-alarretako enpresa eta erakundeen erakusketak antolatuko ere. Eta noski, nahi duen ikastetxeak hartu ahal du parte ekitaldi horietan.

Experimentaldia 2007. Zientziaren II. Azoka honek hiru helburu nagusi dauzka. Lehendabizikoa, kultura zientifikoaren dibulgazioa eta gizartearatzea, herritar guztientzako zabalik dagoen ekitaldi baten bidez da. Modu atsegin eta erakargarrian erakutsiko da zientzia. Horretarako, zenbait gai jorratuko dituzten jarduera eta ekitaldiak antolatuko dira, iraupen desberdinetakoak, betiere bisitarien parte-hartzea sustatuz. Bigarrena, ikasleen artean zientzia eta teknologiarekiko zaletasuna sustatzea da, proiektu esperimentalak egin ditzaten proposatuz. Irakaslelanetan arituko dira ikasleak –egun batez, bederen–, egin duten lana bisitariari erakutsiz. Eta azkenik, enpresa eta erakundeen ikerkuntza zientifikoa eta garapen teknologikoa gizarteari ezagutaraztea da, profesionalen euren esperientziaz baliaturik.

Ikastetxeei dagokienez, nahi duten ikastetxeetako eta hezkuntza maila guztietako lantaldeek hartu ahal dute parte Experimentaldia 2007n. Parte hartzen duen ikasle talde bakoitzak proiektu zientifiko edota teknologiko bat aurkeztu behar du, irakasle baten laguntzaz. Erakusketa-areto bat izango



dute ikasleek Experimentaldia 2007k iraungo duen bi egunetan, beren lanak bisitariari erakusteko, argibideak emateko... Panelak, posterrak eta beharrezko deritzoten gainerako materiala erabili ahal dute erakusketan. Ikastetxe bakoitzak erabaki behar du zenbat esperimentu erakutsi eta zenbat ikasle hartu behar duten parte.

Parte hartu nahi baduzu, jarri Zientziaren KutxaGunearekin harremanetan:

Tel.: 943 012900,

E-posta: [experimentaldia@](mailto:experimentaldia@kutxagunea.org)

kutxagunea.org

Edo bisitatu webgunea:

www.miramom.org




argitalpenak



Eragon

Cristopher Paolini
ELKAR


Liburuaren idazle gazteak Alagaësia izena jarri dio berak sortu duen lurralde fantastikoari. Liburuaren hasieran, lurralde horren mapa zehatza eta zabala azaltzen dio irakurleari. Eragon izeneko 15 urteko mutiko txiroak, bere lagun Saphira dragoiarekin arriskuak gainditu beharko ditu, magiaz beteriko istorio honetan. •



Denboraren makina

Alaitz Olaizola
EREIN


Aitona Pello zahartu egin da eta triste dago. Bere lau bilobak, aitona alaitzen saiaturiko dira eta horretarako, denboraren makina asmatuko dute. Antzerki honen bitartez, gaztetxoek historian zehar ezagunak izan diren pertsonaia batzuk ezagutuko dituzte. Horiekin solasean arituko dira, beraien nondik norakoak ezagutuz. •



Gaur egungo biologiaren erronkak

Abrisketa J.I., Etxeberria J.,
Gonzalez Garai I.
GAIK


Eboluzioaren teoriari buruzko eztabaidak aztertzen dira. Bertan, lehiak zein lankidetzak duten garrantziaz hitz egiten da. Bizitza eta heriotza, genetika emaitzak eta hipotesiak, garapena, ugalketa eta gizakiaren eta naturaren arteko harremani bezalako gaiez mintzo dira orrialde hauek. •



Ingurumen hezkuntzarako naturaguneak

CEIDA

CD honetan Araba, Bizkaia eta Gipuzko naturaguneetan egiten diren hezkuntza programen berri ematen da. Ibilbide gidatuak, material didaktikoak eta hezkuntza programak biltzen ditu material informatikoak. Naturagune horietan ibilbideak garatzen dituzten erakunde eta enpresen zerrenda eskaintzen da baliabide gida honetan. •



ALBOAN hezkuntza materialak

ALBOAN

Hezkuntza baliabide ugari eta erabilera askokoak, formatuari, edukari eta publiko hartzaileari dagokionez. Funtsezko helburua mundua begiratzeko eta harengan eragiteko dugu modua aldatzea da. Unitate didaktikoak, herritartasunaren inguruko hezkuntza proposamenak, ikus-entzuzko materiala zein erakusketak biltzen dituzte CD eta DVD hauek. •



Egin kirola euskaraz

DEBARROKO EUSKARA ETA
KIROL ZERBITZUAK

Kirola euskaraz programaren helburua kirol prestakuntzarako materiala euskaraz sortzea eta argitaratzea da. Honako eskuorrian, orain arte argitaratutako euskarazko kirol materiala biltzen da: bildumako liburuak, hiztegiak, bideoak... Eskuratzeko, Arrasateko Musakola kiroldegira edota Anoetako kirol etxera jo daiteke. •

... goza nazazu gehiago

Egonaldiak euskararekin



Iزارo SUSPERREGI
URTXINTXA ESKOLAKO
HAUR ETA GAZTE ARLOKO ARDURADUNA

Orain arte behin baino gehiagotan aipatu dugu euskararen indarberitzean eragiteko hizkuntzaren erabilerarekin zerikusia duten esparru guztiei erreparatzea ezinbestekoa dela. Oraingoan, jardun osagarriari buruz arituko gara; bi egun edo gehiagoko irteeren gainean, zehazki.

Mota horretako irteeretan irakasleek eta ikasleek elkarrekin pasatzen dituzte eguneko hogeitalau orduak. Ikastetxean igarotzen dituzten orduen aldean lau edo bost aldiz gehiago eguneko; eta kantitatea baino interesgarriagoa den kalitatearen aldetik, zer esanik ez. Helena Baraibar eta Kristina Boanek 113. zenbakiko "Ikasleak nola limurtu" izeneko artikuluan aipatu bezala, gela barruko jarduna etengabeko simulazioa da eta mota honetako jardue-

retan, berriz, hizkuntzari ematen zaion erabilera funtzionala eta sinesgarria da. Gune horien testuinguruan sortzen dira egiazko harremanak ikasleen eta irakasle-ikasle artean.

Egun batzuetako egonaldi bat egitea erabakitzen badugu, oso garrantzitsua da alde aurretik ahalik eta kontu gehien zehazten hastea.

- **Egonaldia non egingo dugun** pentsatzea da lehenengo zeregina. Aterpetea zein herritan kokatua dagoen funtsezkoa izango da helburuak betetzeko. Herri euskaldun batean kokatua badago oso erraza izango da bi helburu lortzea: alde batetik ikasleek euskaraz bizi den jendea badagoela ikusiko dute eta bestetik, egonaldian zehar herritarrekin izango dituzten harremanak euskara hutsean egingo dituzte.

- **Egonaldian zehar egingo ditugun ekintzak** ondo diseinatzen baditugu gauza asko lortuko ditugu. Bi motatako ekintzak antola ditzakegu: zuzenean hizkuntzarekin lotura dutenak (mimika, hitz ezkutua, asmakizunak, hieroglifikoak eta antzeko frogekin osatutako lehiaketak, antzerkiak edo emanaldiak...) eta oharkabean ezagutzak jaso eta euskara erabiltzeko oso aproposak diren bestelako jolasak (animaziozkoak, sokasaltokoak, esku-jolasak, korrujolasak...).

- **Eguneroko bizitzako mementoak ere aurrez diseinatu behar ditugu.** Es-

natzea, otorduak, atsedean orduak, dutxa garaia, oheratzea..., dira memento horiek. Izan ere, horiek izango baitira ikastetxearen eremuan edukiko ez ditugun uneak (otordu eta atsedean garaia salbu). Une horietan, irakaslearen paperak berebiziko garrantzia du. Estrategia ezberdinak erabili beharko ditugu: oso berritsuak izan, haur eta gazteei hitz egiteko aukera eman, errepikapena, esaldiei buelta eman... baina betiere oharkabean. Oso sotilak izan behar dugu, beraien hizkuntza ohiturak aldatu nahian gabiltzala konturatzen badira, akabo! (gogoratu ikasleei euskaraz hitz egiteko esateak jada ez duela askorako balio). Irakasle guztiek jarrera berbera mantentzea derrigorrezkoa izango da estrategia horiek funtzionatzeko. Koherenteak izan behar dugu gure jardunean.

Aipatu ditugu bada, bi egun edo gehiagoko irteeretan hizkuntzaren planifikazioa egiteko zenbait pauso. Badira, ordea, ikastetxeei zuzenduta, gisa horretako egonaldiak eskaintzen dituzten programak. Nafarroako Gobernuak Arantza herrian antolatzen dituen egonaldiak edo EAEn egiten diren Euskal Giroitze Barnetegiak kasu. Bertan, hainbat hezitzailek, bost egunetan, aisialdiko ekintzak burutzen dituzte aipatu ditugun estrategiak eta beste hainbat erabiliz. Betiere, azken xedea, ikasleen euskararekiko motibazioa piztu eta euskararen erabilera areagotzea da.

atzeko atetik



Anjel ALKAIN

AKTOREA

Nire lagun bati gauza kurioso bat pasa zitzaion orain dela gutxi. Irakaslea da eta egun erdi jarduten da ikastola batean. Hartu zuen egutegia eta aurrena irakasle bezala ikusi zuen: “Ño! Ze ondo, zenbat zubi!”, esan zuen aurpegi alaiez. Eta segidan, “La ostra, zenbat zubi!” esan zuen kezkatuta egutegia guraso bezala ikusitakoan.

Izugarrizko grazia egin zidan. Sketch bat egiteko modukoa da. *Wazemank*-erako gaiak pentsatzen aritzen garenean, proposatu izan dugu irakasleen munduari buruzkoak egitea. Ukitzeko moduko mundua dela iruditzen zait. Adibidez, irakasle gela bateko fotokopiagailuak hitz egingo

Irakasleen mundua eta gurasoen sekta

balu? Edo ikasturte bukaerako polborioiak saltzen dituenaren bisitan ikusiko litzatekeena? Edo kafea edo ura ekartzan duena etortzen denean?... Irakasleen gela oso aberatsa iruditzen zait, irakasle klase asko baitaude: soinketako irakasle *guay* hori, beste irakasle askoz zorrotzagoa baina azkenean majoena bera dela konturatzen zarena...

Mundu oso bat dago lantzeko, baina era berean, mundu oso konplikatu dela iruditzen zait. Kontu handia eduki behar da zer esaten den, eta esan beharrekoak ondo esan behar dira. Errazena egitea eta barre egitea da, eta ez da hori bakarrik. Printzipioak mantendu egin behar dira. Mundu batzuk ezin dira hain axaletik landu, eta gainera, ez dut nahi.

Umorea egiteko “topikazoetara” jo beharra dago, eta kasu honetan oso erraza da irakasle eta ikasleen arteko “topikazoetara” jotzea eta “zigortuta!” esatea. Baina hori ezin da egin, zeren jada ez dago zigorrik. Hori garai bateko kontua da. Hori dezente aldatu da eta kontu handia eduki behar da horrekin. Ez da fribolitatez bete behar mundu hori, zeren hor daude bullyingaren kontua eta abar.

Gainera, gaur egun irakasleekiko errespetua galdu egin dela uste dut eta hori oso gaizki iruditzen zait. Lehengozan irakurri nuen Sarkozyk esan zuela presidente ateratzen baldin bada ikasleek altxa egin beharko dutela irakaslea gelara sartutakoan. Buelta batzuk eman dizkiot eta ez zait hain gaizki iruditzen (zahartzen ari naiz). Ez nago horren alde, baina iruditzen zait badaukala beste irakurketa bat. Ikasleek zerbait egin beharko lukete irakasleari errespetua adierazteko. Eta baita gurasoek ere.

Gurasoen sekta oso-oso peligr osoa gara. Talde bat gara, hitz egiteko moduagatik eta denagatik. Ikusi besterik ez dago parkeetan. Irakasleekiko, berriz, kexa asko dagoela iruditzen zait. “Nire semeak esan dit haur egin zeniola” esanez joaten da guraso bat. Eta irakasleak: “A, bai? Eta ez al zizun esan zer egin zuen aurretik? Edo igual al zaizu?”. Igual baldin bazaigu zeozer gaizki egiten ari gara. Gaur egun umeei bakarrik sinesten zaie, eta dudarik ez daukat normalean irakasleak izango duela arrazoia.

Horregatik diot agian Sarkozyk esan duena astakeria bat dela horrela esanda, baina badaukala bere oinarria. ●



Bangladeshen 15 urteko haurrak espetxeratuak izan daitezke ikasturte amaierako azterketetan tranpa egiteagatik

Iturria: Internet

IKS - EHIK AIFBIEGIEINIESEASKA
#0708

**EUSKAL
HERRIKO
IKASTOLEN
KONFEDERAZIOA**
Zamudioko Teknolgi
Elkartegia, 208 B - 1
48170 ZAMUDIO
(BIZKAIA)
Tel.: 94-431.78.83
Fax: 94-431.78.82
www.ikastola.net
ehik@ikastola.net

**ARABAKO
IKASTOLEN
FEDERAKUNDEA**
Gaztela ataria 101
01007 - GASTEIZ
Tel.: 945-23.33.55
Fax: 945-13.53.21
www.ikastola.net
aiff@ikastola.net

**BIZKAIKO
IKASTOLEN
ELKARTEA**
EUSKARAREN ETXEA
Aoiz plaza 1 - 4.a ezk.
48015 - BILBO
Tel.: 94 435.43.40
Fax: 94 435.43.41
www.bieikastola.net
bief@ikastola.net

**GIPUZKOAKO
IKASTOLEN
ELKARTEA**
IKASTOLEN ETXEA
Errotazar bidea, 124
20018 - DONOSTIA
Tel.: 943-44.51.08
Fax: 943-46.52.94
www.ikastola.net
gief@ikastola.net

**NAFARROAKO
IKASTOLEN
ELKARTEA**
San Anton 3 - 1.
31001 - IRUÑA
Tel.: 948-22.21.96
Fax: 948-22.29.41
www.ikastola.net
nief@ikastola.net

SEASKA
Bat Central Forum
Pontots bidea
64100 - BAIONA
Cídex 1
Tel.:
00.33.559-52.49.24
Fax:
00.33.559-52.88.87
www.ikastola.net
seaska@ikastola.net



GUK ikastola



Handitan beste planeta batzuk aurkitu nahi ditut nire espazio-ontziaz



Handia naizenean noranahi joan nahi nuke, eta bertakoekin hitz egin



Handia naizenean nire lagunek lagun izaten jarraitzea nahi dut



Handitan istorio asko kontatu nahi dut: jende askori amets egiten lagundu nahi diot



AURREMATRIKULA NOIZ
Otsailaren 26tik
Martxoaren 9ra

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA
Hemen hasten da haurraren etorkizuna



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACION
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION